

GARATE FRANTZISKOren bizitza hau
bai pozik idatzi dudala!

Euskalduna zelako.

Baserriko semea zelako.

*Guretzat, zeru bidean oinezkoentzat,
haren bizitza xume erraza,
imitagarria delako.*

Nire lana, gehien bat, izan da:

*Garate Anania, dohatsu egiteko «prozesuan»
testigu-lekukoek esandakoa, antolatu, zuzendu,
eta liburutxo honetan jarri.*

Komentarioak, irakurle, zuk egin behar dituzu.

GOIKOETXEA IÑAKI



**GARATE ANANIA
DOHATSYA**

GARATE ANANIA DOHATSYA

GARATE ANANIA DOHATSYA

SM

GOIKOETXEA IÑAKI

**GARATE ANAIA
DOHATSYA**

49.938



Mensajero

© Argitaratzailea: Ediciones Mensajero
Sancho de Azpeitia, 2 - 48014 BILBAO
Apartado 175 - 48080 BILBAO
ISBN: 84-271-1429-X
Depósito Legal: BI-1753-85

E. Ellacuría Lab., S. A. - Avda. Ribera de Erandio, 19
ERANDIO (Vizcaya)

HITZ AUREA

GARATE FRANTZISKOnen bizitza hau
bai pozik idatzi dudala!

Euskalduna zelako.

Baseriko semea zelako.

Guretzat, zeru bidean oinezkoentzat,
haren bizitza xume erraza,
imitagarria delako.

* * *

Hau da Garate Anaiari buruz idazten den
hirugarren liburua.

Lehenengoa:

Manzisor I.M., azkoitiarrak, idatzi zuen
1936. urtean.

Bigarrena:

Intxaurrendieta'tar Gabriel, lezotarrak,
1983. urtean.

Irugarrena:

Zure eskuetan duzuna da.

Goikoetxea'tar Iñakik, zeanuri-tarrak idatzia,
1985. urtean.

* * *

Nire lana, gehien bat, izan da:

Garate Anania, dohatsu egiteko "prozesuan"
testigu-lekukoek esandakoa, antolatu, zuzendu,
eta liburutxo honetan jarri.

Komentarioak, irakurle, zuk egin behar dituzu.

Loiola-n, 1985. urriak 6.

"ERREKARTE" BASERRIA

Euskal baserriko pake gozoa, bai ederki kantatu zuela
Joan Bautista Elizanburu, Sara-ko olerkari ospetsuak:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
etxe tipitto, aintzin zuri bat
lau haitz ondoren erdian,
xakur zuri bat atean,
iturritto bat aldean?

Han bizi naiz ni bakean.

Frantzisko Garate jaio zen "Errekarte" baserria,
ez dago —egia esan— "menditto baten gainean",
baina bai Loiola-ko Inazio Santuaren basilika
altxatzen den Urola-ko ibar eder, zoragarrian.
Inazioaren Santuregitik 100 metro besterik ez.
Ba du Errekartek iturritxo bat aldean,
baita Izazpi menditik behera harri artean kantari
jaisten den Sistiaga erreka garbi, saltakaria.
Horregatik izena ere "ERREKARTE".

ERREINU TXIKI BAT

Euskal Herrian, lehen, baserri bakoitza,
Erreinu txiki bat zen:

aita Errege, ama Erregin, eta seme-alabak
erreinu hortako bizilagun.

Garatetarrek, Errekarte etxearen jabe ez izan arren,
beren ondasunak ba zituzten:

Ikuiluan zortzi behi, basoan larogei ardi,
oilategia, zerritegia, hiru txabola, sagastia,
gaztainadia, belar-zelaiak, berenak ziren.

Landutako soroetan garia, artoa, ohialak egiteko linoa.

Baratzean azak, patatak, porruak, babarrunak...

Errekarteko ganbara eta aletegia negurako janariz,
ongi horniturik ikusten ziren.

"Zoko guztiak beteak,
ez gaitu hilko goseak)"⁹

esan zezaketen, lehen aipatutako olerkariak bezala.

* * *

Errekarte etxea Gipuzkoako beste baserri askoren
antzeko zen:

etxeko behealdean sukaldea, gela bat eta ikuilua.
Goiko aldean logelak, ganbara, aletegia eta abar...

Osasuna lagun, eta lanean saiatuz, Errekartekoek,
aberatsen milikeriarik gabe,

pakean eta lasaitasunean bizitzeko modua ba zuten.

NAHASKETA TXIKI BAT

Errekarten bizi ziren txikiak

hiru ezkontza desberdinetatik jaioak ziren,
horregatik gauzak garbi jartzea egoki da.

INAZIO ARREGI eta MARI JOXEPA ARANGUREN

elkarrekin ezkonduz, bi seme izan zituzten:

Joxe Mari eta Joan Bautista.

Baina, Inazio bost urte barru hil egin zen, eta orduan

PATXI GARATE eta MARI JOXEPA ARANGUREN

elkarrekin ezkonduz, bi alaba izan zituzten:

Mari Batista eta Ana Joxepa.

Baina, Mari Joxepa, bigarren alaba izatean, hil egin zen,
eta orduan:

PATXI GARATE eta MARI BATISTA ARANGUREN

(Mari Joxeparen aizpa)

elkarrekin ezkonduz, zazpi seme-alaba izan zituzten:

1. Joan Joxe 5-X-1853. jaioa
2. BLAS FRANTZISKO MARIA 3-II-1857. jaioa.
3. Inazio Joxe 14-XII-1859. jaioa.
4. Mari Anttoni 20-X-1862. jaioa.
5. Domingo Andres 4-VIII-a864. jaioa.
6. Joxepa Martzeliñe 26-IV-1867. jaioa.
7. Mari Kristiñe 24-VII-1873. jaioa.

Beraz, Frantzisko Garate, Aranguren,

Patxiren bigarren ezkontzako semea zen.

Patxi azkoitiarra zen, Gaintza-txiki baserrikoa.

Mari Batista Aranguren, Errekartekoa zen.

PATXI BAKARRIK

Gure doatsuaren aita izan zen, Patxiirengandik,
historia kontatzen hastea komeni zaigu.

Patxi Garate, bere emazte Mari Joxepa hil zenean,
lau ume txikikin —haundienak 9 urte—
bakarrik eta triste gelditu zen.

Nahiko negar egingo zuen ezkutuan Patxi errukarriak.

Egia esan, aiton-amonak —Joan Batista eta Ana Mari—

Errekarten bizi ziren, baina urteetan aurrera joanik,

ez ziren gauza etxeko lanei erantzuna emateko.

Baina, batez ere, haur jaio-berriak,

ama-ordeko baten beharra zuen.

Ilunaldi hartan amonak Patxiri esan zion:

"Seme, oraindik, sasoi oneko gizona zara —32 urte—

eta haur honek ama berri baten beharra du.

Zergatik ez duzu zure koinata Mari Batistarekin
hitzegiten?

21 urte ditu, eta zein neska jator eta itxura onekoa den,

ba dakizu. Ume gaixo honentzat, berak nahi balu,

benetako ama izango litzateke".

Ez zuen Patxik bi aldiz esan beharrik.

Berehala Bilbo-ra abiatu zen, Orue-tarren familian

zerbitzen ari zen, Mari Batistarekin hitzegitera...

Eta elkar hobeto ezagutu, eta maitemindurik,
ezkontzeko asmoa hartu zuten.

Baina koinatarekin ezkontzeko "ahaidetasun" eragozpena

aurkitu zuten, eta Erromako baimena etorri arte,

paper-lanak denbora luzea beharko zutelana-eta,

Patxik, ez alfer eta ez nagi, berbera Erromara joatea

lehenbailehen erabaki zuen.

Hango jesuita euskaldunak lagunduta, nahi zuen baimena,

errazago eta lasterrago eskuratuko zuen.

ERROMARA NONDIK?

Ba ziren orduan Loiola inguruan beste bi alargun, beren koinatekin ezkondu nahi zutenak, eta hirurak batera Erromara joateko erabakia hartu zuten...

Azpeitiako jende adar-jotzaileek kontatzen dute, gure hiru gizonak, fardela bizkarrean, paperak golkoan, eta diruak potzikoan, oinez Landetako bide-gurutzera heldu zirenean, —Azpeitiatik 2 kilometro besterik ez— zalantzan galdezka hasi zirela:

Bi bide hautatik, zein da Erromarakoa?

Dena dela, ausartak izan behar, gaztelaniaz hain gutxi, frantzesez eta italiano z hitz bat ere jakin gabe, ezagunik gabe, atzeriko bidea hartzeko.

Euskal esaera-zaharrak dio:


"Atzerri, otso-herri",

baina Loiolatarrok ez zieten otsoei beldurrik...

Ipar-Euskadiko Donibane Lohitzun-eraino oinez, eta handik Erromaraino trenez joango zirela uste dugu, aldi hartan hori bait zen biderik zuzenena.

Erroman, jesulagunen bitartez, nahi zuten baimena laster eskuratu zuten, eta Patxi bertan, Agustin Donearen elizan "eskubidez" bere koinata Mari Batistarekin ezkondu zen. 1852. urtea zen, eta Pio IX. zen orduan Aita Santu. Etxera itzuli, eta Erroman "eskubidez" egindakoa, Azpeitiako parrokiari, Patxik eta Mari Batistak, beren ezkontza berritu zuten.

ERREKARTE



PATXI ETA MARI BATISTA

Patxi Garatek, Loiolako auzokoen artean, gizon zintzo, eta zuzenaren fama zuen.

Baten baino gehiagotan pakeak egiteko bitartekotzat hartu zuten.

Bestaldetik gizon langilea, eta emandako hitza betetzen oso leiala omen zen, jatorra eta jainko-zalea.

Aranguren-dar Mari Batistak, ordea.

Bilboko etxe aberats batetan zerbitzen egonez gero, sukaldeko lanak, etxeko txukunketak, eta kaletarren gizabidezko ohiturak ikasi zituen.

Aho gozoko emakumea omen zen.

Erlijo-zale zela, ez da esan beharrik.

Patxi, hitz gutxiko gizona omen zen.

Batista, oster, aho-iturri onekoa, eta eskuz trebea.

ERREKARTE LORATZEN

Mari Batista, 21 urteko emakume gaztea, ezkondu zenean, Errekarteko Erregin bihurtu zen.

Bera jabetu zen, bere ahizpa Mari Joxepa hildakoaren lau seme-alabetaz.

Ezkondu eta hemeretzi hilebete barru, Errekarten jaio berri baten negarra entzun zen,

Ama berriaren lehen semea: Joan Jose.

Lau urte geroago bigarren semea izan zuen, gero urteak igarota aldaretan ikusiko zena.

FRANTZISKO GARATE DOHATSUA.

Mari Batistak geroago beste bost seme-alaba izen zituen, baina oraingoz hau jakitea nahiko da.

GARATE FRANTZISKO, PRAISKU

Errekarte baserrian jaio zen,

1857 urteko Otsailaren 3an, San Blas egunean,

Frantzisko Garate, Aranguren,

Frantzisko eta Mari Batista-ren bigarren semea.

Hurrengo egunean Azpeitiako parrokian bataiatu zuten,

Loiola-ko Iñigo bataiatua izan zen batai-harri berean.

Parrokiako bataio liburuan, Blas, Frantzisko, Mari,

hirukoitz izenez agertzen da:

Blas, jaioteguneko santuagatik,

Frantzisko, bere aitaren izena,

Mari, bere ama eta izeba hildakoaren oroimenez.

Baina aitari "Patxi" esaten ziotenez gero,

auzokoak jaio berriari "Praisku" deitzen hasi ziren.

Guk ere Garate-tar Frantziskori,

Jesusen Lagundian sartu arte, "Praisku" deituko diogu,

etxeko eta lagunaren ohiturara jarraituz.

MARTOPILAK

Haur bat jaiotakoan, ba zen Loiolan eta Gipuzkoan, MARTOPILAK izeneko ohitura zahar bat.

Ama batek familia izaten zuenean, inguruko etxeoandreek, otarratxoetan opariak harturik, — arraultzeak edo, txokolatea edo, bolauak edo — ama berriari Zorionak ematera joaten ziren.

Amaren gelan sartzean, esaten zuten:

"Jainkoak zure haurra bedeinka dezala"

Eta ama berriak erantzun:

"Eta bera zerbitzeko izan dadila"

Zenbait egun geroago, ama berriak, eskerrak emateko, jatordutxo bat ematen zien opariekin etorri zirenei.

MARTOPILAK izeneko ohitura honek ba du halako Itun Zaharreko usain gozo bat:

"Isabelek semea (Joan Bataiatzailea)

izan zuenean, auzokoek eta ahaideek zorionak ematen zizkoiten"

(Lukas 1,58)

"Martopila" ohitura eder honek oraintsu arte iraun du Loiolako auzokoan artean.

PRAISKU ESKOLARA

Euskal Herriko eskolari buruz zerbait garbi jakiteko, gizaldietan gora jo behar dugu.

XVI. gizaldian Trentoko Kontzilioak agindu zuen:

"Herrietako apaizek bertako haurrei, irakurtzen, idazten, matematikak eta kantuak irakas biezazkiete".

Apaizak ziren aldi hartan, gehienbat, gure herrietako eskola maisu.

XVII. gizaldian Baionako Eliz-barrutiak agintzen du:

"Parrokia bakoitzak bere eskola izan beza, umeei dotrina eta letrak irakasteko".

Agindu hau betetzeko gure mendi eta baserrietako ermitek ba zituzten "serorak", baseritarren umeak eskolatzeko.

XVIII. gizaldian, 1721 urtean, Gipuzkoako Junta Orokorrak lege hau eman zuen:

"Gipuzkoako herri guztiek, umeei lehen letrak irakasteko eskolak eraiki behar dituzte.

Eta 5 urtetik 12 urterarte eskolara joatera ume guztiak behartuta daude".

Baina hala ere, Gipuzkoan behintzat, lehengo serorek, 3, 4, 5 urteko haurrei, eskola ematen jarraitzen zuten.

Errekarte inguruan ba zen holako eskola bat, eta txikitan gure Praisku hara joango zela uste dugu. Gero haundiagotan Azpeitiako eskolara joaten hasi zen.

GOAZEN ESKOLARA!

Azpeitiako herriak 19. mendean sei eskola zituen, bakoitza bere maisuarekin.

Praisku mutikoa egunero oinez, bere lagunekin batera, Azpeitiako eskolara joaten zen, irakurri-idatzi, eta kuentak erdaraz ikastera.

Dotrina beti euskaraz ematen zen.

Loiolatik Azpeitiara kilometro bat eta erdi.

Ez zen bide luzeegia orduko ume ibiltarientzat.

Eskola-umeek, gauza guztien gainerik, erdara —gaztelania— ikasi behar zuten.

Hortarako hiru mailako metodoa erabiltzen zen:

LEHEN MAILAN, erdarazko hitzak bakarrik ikasten ziren, gisa honetan:

Maisuak gauza bat, adibidez "liburua" eskuetan hartu, eta honen izena euskaraz "liburua" esaten zuen.

Gero ikasleek, hitz berori erdaraz "libro"

behin eta berriz errepikatu behar zuten.

BIGARREN MAILAN, ADITZAK ikasten ziren, metodo berdinez.

Maisuak aurretik esaten zuen: "nik dakari", eta ikasleek erdaraz "yo traigo" erantzuten zuten.

HIRUGARREN MAILAN, ESALDIK egiten ikasten zen.

Maisuak aurretik "nik ura dakart iturritik".

Eta ikasleek gero "yo agua traigo de la fuente".

Esaldi hauek harbelan idazten ziren.

Praiskuk eskolan erdaraz pitin bat ikasi zuen, baina gero ere, bizitza osoan, erdaraz hitzegitean, euskal kutsuak iraun zion.

Erdaraz ikasteko Astigarragaren eskola-liburua erabiltzen zen, Gipuzkoako Foru Ahaldundiak eskola guztientzat gomendatua.

NORK DU ERAZTUNA?

Euskal Herriko eskoletan, dotrina izan ezik, beste den-dena erdara hutsean ikasten zen, eta euskaraz mintzatzea zeharo galerazita zegoen.

Maisuek ERAZTUNAREN metodoa asmatu zuten, eskola umeak erdaraz mintzatzera behartzeko.

Ikasbide "bitxi" hori zer-nolakoa zen Wilhelm Humboldt, aleman jakintsuak, erakusten digu, Euskal Herrira etorri zenean berak ezagutu bait zuen.

"Eskolako astearen lehen egunean maisuak eskolako haur bati ERAZTUNA ematen dio.

Eraztuna duen ume honek, bere lagunengatik bat euskaraz mintzatzeko entzuten duenean,

hari pasatzen dio bere eraztuna.

Eta ume berri honek berdin egiten du beste batekin, euskaraz mintzatzeko harrapatzen duenean.

Astearen azken egunean, maisuak galdetzen du:

"nork dauka ERAZTUNA?"

Eta "errudunari" eskola erdian belaunikaturik, besoak gurutzean, eta alkandora altxaturik, "merezki" izan duen kastigua ematen diote.

Humboldt Jaunak harriturik aitortzen du:

"Alemaniako jakintsu guztiak, batera jarrita ere, ez dute hizkuntzak ikasteko "eraztunaren" pareko metodorik asmatu".

Eta egia dela siniskaitz denez gero, hau dio:

"Sinis ezazu: hau Durangon Astarloa Jaunak kontatu zidan, eta horregatik baseritarrei aldapa gora egiten zaie, beren haurrak eskolara bidaltzea".

Eta injustizia honengatik erremindurik, idatzi zuen:

"Honenbesteko zapalketak eraman behar dituzte euskaldunek beren Aberrian".

PRAISKU MUTIKOA NOLAKOA ZEN

Praisku mutikotan zer moduzkoa zen jakiteko, ezin da zehastazun haundirik eman.

Zahartzaroan berak aitortu zuen bezala, gaztetan mutiko "bihurria" omen zen. Bihurriak esan nahi du: "geldi ezin egona".

Eskolan oroimen onekoa zen. Maisuaren ikaskizunak bere buruan erraz hartzen zituen.

Bere aitaren antzera "pake egilea" zen. Lagunen artean, haserretzen zirenean, bakeak egiten ahalegintzen omen zen.

Errekarteko astotxo gainean Azpeitiara joan-etorriak egiteaz, asko gozaten omen zuen.

Loiolako etxeaundiaren hormetan pilotan jokatzera ere asko maite zuen, nahiz-eta pilotak harrizko leihoetan bote txarra emanaz, jokalariai aldrebestu.

Txikitan Praisku ezagutu zutenek diote: Mutil ona zela, eta adin hartako beste edozein mutiko bezala portatzen zela.

Hala ere, norbaitek dio, Mari Batistak bere seme-alabei Praisku sarritan eredu bezala jartzen ziela, esanez:

"Begira, Praisku ez da zuek bezalakoa. Horrek nire esanak ongi egiten ditu, eta niri laguntzeko beti prest dago".

ERLIJIO GIROA

Praisku ume zelarik, Loiolako "etxeaundian" —hala deitzen diote ingurukoak Santutegiari— ehundik gora jesulagun bizi ziren.

Haien artean asko euskaraz zekitenak ziren. Gazte hauek igandero Loiolako atariko aretoan, haurrei dotrina santua euskaraz irakasten zien. Baita lehen jaunartzea egiteko prestatu ere.

Praiskuk, beste umeek bezala, 10 edo 11 urtekin, Azpeitiako parrokiaren lehen jaunartzea egingo zuen.

Bestaldetik, Mari Batista eta Patxi, gai honetan, seme-alaben gidari zintzoak ziren.

Orduko kristau sendietan egiten ziren debozioak Errekarten ere zehaztasun guztiz betetzen ziren: goiz, eguerdi eta iluntzez, basilikako kanpai astuna entzuten zenean, "anjelus" errezatzen zen. Jaterakoan eta lotarakoan betiko otoitzak.

Jaietan Meza Txikia loiolako basilikan, eta gero Meza Nagusia Azpeitiako parrokiaren.

Jai arratsaldetan berriz bezperak Azpeitian. Garizuman gurutz-bidea eta eliz hitzaldiak.

Maiatzeko hilean Ama Birjinari loreak. Ekainean Jesusen Bihotzari jaiera bereziak.

Baina Errekarten jaiera eta errezu guztien gainetik ba zekiten Jaunaren Agindu Nagusia betetzen:

"Lagun urkoa maita ezazu".

Edozein eskalek ez zuen Errekarteko atea joko, laguntzarik hartu gabe.

Ba zuten sukalde ondoan txoko bat, negu gorrian pobreak, porru-patata beroak janda, epelean lo egiteko prestatua.

OZPINA ETA OLIOA

Aste Santutan, Azpeitiako parrokiara joaten ziren, orduko kristautentzat hain atsegingarri ziren sermoi luze, ikaragarriak entzutera.

Aldi hartako hizlari famatuak, Itun Zaharreko profetak zirela ematen zuten:

Eliza ilunpetan jarrita, pulpitu gainetik, trumoi ahotsez, pekatarien gainera, Jainkoaren aserre santua ba zetorrela predikatzen zuten.

Erljio giro gogor hori ederki azaltzen digu

Xalbador bertsolari ospetsuak:

Orduko apez suhar, zintzoek,
halako hitzak zituzten,
etzen maitasun gozo haundirik
haien ahotik ixurtzen.

Haien Jaunari eman itxurak
asko ninduten beldurtzen...

Gastiguaren labe gorria
baizik ez zuten ikusten.

Xalbadorek esana, Praisku ere aitor zezakeela, uste dut.

* * *

Baina sermoi izugarri haiek ba zuten beste aldeko txanda. Jesusen Bihotzaren jai xamurra etortzen zenean, lehengo sermolari garratz beraiek, dena maitasun ziren, Jainkoaren erruki neurrigabea, kantu goxoen artean, zeruraino goratzen zutenean.

Honela ozpin garratz, eta olio bigun,
kristau herria zeruko bide zuzenetik zebilen.

Bide estu-samarra guretzat, kamioi astunak geranontzat,
baina orduko gurdientzat nahiko zabala eta egokia.

LOIOLATIK JESUITAK KANPORA

1867. urtean Espainiako Isabel II. Erregina, Zarautzen uda-pasa zegoelarik, Loiolara etorri zen, bere handiki eta ministrariz inguraturik.

Basilikan meza nagusia entzun ondoren, jesuitakin solas-aldi luze bat izan zuen, ez denentzat pozgarri.

Handik hiru urte barru, Prim Jeneralak, Isabel Erregina erbestera bidali, eta honen ordeztan, Saboyako Amadeo jarri zuen Madrilgo errege-aulkian.

Gobernu berriak Jesusen Lagundia Espainiari estadtutik kanpora bidali zuen.

* * *

Loiolako etxetik 130 jesuitek, zahar eta gazte, maletak eskuan, eta pena haundia bihotzearan, Frantziara ihes egin beharra izan zuten.

Loiola etxea triste eta hotz gelditu zen, txorikumerik gabeko habia zapuztuaren antzera.

Azpeitia eta Azjoitiako herriak jesuitak maite zituen, eta ba zihoazela jakin zuenean, Loiolara agur egitera etorri zen.

baita Lege horren aurka protesta egitera ere.

Praisku, orduan, 11 urte zituen.

Gipuzkoako Foru Diputazioa egin zen etxearen jabe, eta bi jesuita izendatu zituen, basilikan mezak eman eta aitortzak entzuteko lagun zezaten.

Azpeitiako "Uztari" bertsolariak

Loiolako bakartadea honela kantatu zuen:

Begiratu Loiolari,
triste dagola dirudi...
Sermoi ederrak ugari
eiten zizkiguten guri.
Orain ez dira ageri.

XIX. MENDEA ESPAINIAN

Espainiako historia mende honetan, nahaste, iraultza, eta gerraz hondaturik azaltzen da.

Gobernu batek bestea botatzen du; errege batek bestea; gaurko jauntxo eta agintariak, bihar zapalduak eta baztertuak ikusten dira.

Jesusen Lagundia hiru aldiz herbestera bidalia izan zen, eta beste hiru aldiz onartua,

Ego-Euskal Herria ere, nahasketa honetan murgildurik bizi zen.

Euskaldunek bi aldiz gerran altxa ziren,

Foru-askatasun eta Erljioaren alde.

Lehen karlista gerla, 1833-1839, zazpi urte iraun zuen.

Zumalakarregui, karlisten agintari.

Iparraquirre, gerra honen kantari.

Bigarren karlista gerla, 1872-1876, lau urtekoa.

Santa Kruz apaiza gerla honetan gerrilari.

Bi gudu hauek galdu ondoren Euskal Herria lurra jota, guztiz hondatuta gelditu zen.

Karlista gerra-mutil "boluntarioak" mendian iluntzean, errosario santua errezatu ondoren,

"Inazio, gure patroï andia"

kantatzen zuten "Himno Oficial" bezala.

LOYOLA



GERTAKARIEN LABURPENA

Hona hemen gertakari guzti horien laburpena, datozen gora-beherak ulertzeko beharrezkoa delako.

* * *

- 1808-1814 Napoleonen aurkako "Independentzia" gerla.
1815 Fernando VII. erregeak, erbestean zeuden jesuitei itzultzeko baimena ematen die.
1820-1823 Liberal iraultza. Fernandok konstituzioa onartzen du, eta jesuitak erbestera.
1823 100.000 frantzes Espainiara sartzen dira, eta Jesusen Lagundia berriz ere onartua.
1823-1833 Hamar urteko pakea. Jesuitak asko ugaritu.
1833 Fernando hil eta karlista lehen gerla hasi.
1835 Madrilen konbentuak asaltatu eta erre eta 71 fraile hil.
1839 Zazpi urte ondoren karlista gerla amaitu. Isabel II. Espainiako Erregin. Jesuitak erbestera.
1851 Isabelek aita Santuareakin Pakeak egin, eta jesuitak itzultzeko baimena lortu.
1868 Prim Jeneralak Isabelen ordez, Saboyako Amadeo Errega ekartzen du. Jesusen Lagundia berriz ere kanpora.
1872 Bigarren karlista gerla hasten da.
1873 Amadeo Erregea aspertuta ba doa, eta urte beteko errepublika.
1874 Alfonso XII. Espainiako errege.
1876 Bigarren gerla karlista, lau urtekoa, amaitzen da.
1876-1880 tanta-tantaka jesuitak erbestetik etxera datoz.

EUSKAL HERRIKO GIROA XIX. MENDEAN

Euskaldunek, gehienek behintzat, erlijioa maite zuten, baita Foru-askatasuna ere.

Baina, zoritxarrez, une larri hartan ez zuen aurkitu herriak, hain beharrezko zuen gidari argirik.

Itsu-itsuan, nora jo eta zer egin jakin gabe, Karlos, Espainiako erregearengan jarri zuen, bere itxaropen osoa...

Eta Erljioa, Foruak, eta Karlos Erregea, hiru lokarri hauekin zigor-latigoa eginik, borrokara joan zen, su eta gar, "beltzak" liberalak, Jainkoaren eta Foruen etsaiak, zigorkatzera.

Zazpi urteko gerla luzearen ondoren, Foruak zapalduta, Euskal Herria hondatuta, odol hustuta, indarrik gabe, etsaien mendean gelditu zen...

Baina hauts azpian suak bizirik irauten zuen, eta 33 urte geroago berriz ere euskaldunak borrokara joan ziren, beren ustez, erlijioa eta askatasuna zaintzera.

Garai hartako giro itogarria, argi ta garbi erakusten digu "bizkaitar batek" bere beriso berrietan.

BERTSO BERRIAK, BIZKAITAR BATEK JARRIAK

Ogeita bat urte
dira igaruak
agintzen digutela
liberal gaiztuak.
Astuzia aundiakin,
madarikatuak,
engaiñatu dituzte
karlista zintzuak.

* * *

Agintari jarri da
jende itsusia,
Serrano ta Topete,
Prim ta familia.
Onela bete dute
dauken baneria,
mantxaturik galanki
beren kontzientzia.

* * *

Eliza Santagana
dauken gorrotuak
artu eragin dizte
deabruzko asmuak.
Erbestetu dituzte
Jesusen soldauak,
eta bota ta erre
mojen komentauak.

Ea bada, mutillak,
gogor sendoturrik,
fusil eta makillak
artu gaur bertatik.
Jauna egongo dala
beti gure aldetik
eta Birjin Maria
digute zerutik.

* * *

Don Karlosek eman du
Errege itz aundia,
naiko duela gorde
Jaunaren legia.
Karlos Zazpigarrena
gure Jaun maitia,
zure premian dago
emengo jendia.

"Bizkaitar batek".

Udan hegoaize sargoriak
lurra kistaltzen duenean,
trumoiak laster joko duela
antzematen diogu.

VRDVÑA

1871-1873

BERTS BIZKAIA

Ogeita bat
dira igarua
agintzen di
liberal gaiz
Astuzia aur
madarikatu
engaiñatu
karlista zini

* *

Agintari jar
jende itsus
Serrano ta
Prim ta far
Onela bete
dauken ba
mantxaturi
beren kon

* *

Eliza Santa
dauken go
artu eragir
deabruzko
Erbestetu
Jesusen se
eta bota t
mojen kor

PAISKU URDUÑARA

14 urte ditu. Mutil bizkorra eta argia da.
ak amaitu ditu eta lanerako prest dago.
gin? Nora jo? Gerorako zer bizimodu hartu?
ekarten baserriko lanak egiteko
turen beharrik ez zen sentitzen.

aldetik jesuita izatea ere gogoko zuen...
ezenez erabakia hartu zuen:
ñara joango zen, jesuiten ikastetxera.
etxeko lanetan laguntzen zuen bitartean,
gauzak astiro eta sakonago pentsatuko zituen.
ak lagundu zion bidean.
ku Urduñara noiz heldu zen, eta beste gauza asko,
tasunez jakin ditzakegu, jesuiten ikastetxean,
an bizi zen Aita Iñigo Arana azkoitiar jator,
alzale ospetsuari esker.
a Arana Iñigoren EGUNARIA kuadernotik hartuta:

URDUÑA.

1. Igandea. Haize-zakarra.
Gaur ikasturte berria hasi da.
Goizean Espiritu Santuaren Meza izan da.
Eguerdiko 12etan udal-gizonak, irakasleak,
eta ikasleak ikastetxeko areto nagusian bildurik,
Erretore Jaunak, hitzaldiko baten ondoren,
osasunez makal egon arren,
ikasturte berria zabaldu dela adierazi du.
Gaur goizean ERREKARTEKO PATXI bere seme
PRAISKUREKIN etorri da. Semea hemen gelditu da,
gure etxeko laguntzaile izateko.
Aita arratsaldez Durangora joan da.

URDUÑAKO HIRIA

Bai polita dela Urduñako hiria!
Bilbotik 40 kilometro. Kastillako mugan.
Urduñako haran zabal, borobila —bota herriaren habia—
alde guztietatik mendiz inguratutik, dena orlegi,
anfiteatro haundi baten antzeko dela esan daiteke.

Urduñako hiria, Foru-askatasuna galdu arte,
merkataritzan garrantzi haundikoa izan zen.

Urduñako Plazan zegoen, Kastillatik Bizkaira
sartzen ziren salgaien Aduana edo Muga-etxea.
1842 urtean, Espainiako Gobernuak Ebro aldeko aduanak,
Bidasoara aldatu zituen, Urduñak asko galdu zuen.


* * *

Jesuiten ikastetxea, Herriko Plazan begira,
"Aduana" etxearen aldamenean aurkitzen zen.
Ikastetxe hori, urteak joanez, ospe haundiko egin zen.
Han egon zen ikasle, Praisku baino 8 urte geroago,
Arana Goiri Sabino, bilbotarra.

* * *

Baina jesuitak aldi hartan "desterratuta" egonik,
Urduñako ikastetxea nola zuten zabalik?
Espainiako Gobernuak Diputazio eta Udalei guztiei
ikastetxeak eraikitzeke baimena eman zien,
baldintza edo kondizio bakar honekin:
Gobernuari dirurik ez eskatzeko.
Beste aldetik jesuitek, bi mende lehenago, Urduñan
ikastetxe bat izan zuten, Perun bizi zen urduñatar,
Urdanegi Jaunak, bere diruz eraikita.
Hain zuzen orain, Urduñako Udalak jesulagunei,
aintzinako etxe bera eskaini zien, ikastetxe berria
zabal zezaten.

VRDVŇA ANTIŖVAKO AMA



BETI AURRERA !

Nolako bitzta egin zuen Praiskuk Urduñan? Gaisozainari lagundu, egunero posta-korreoa eramán, eta etxe haundi hartako beste mila lan eta enkargu bizkor egin... eta bitartean erdaraz ikasi.

Arratsalde erdian, 9 mutil laguntzaileek eskola izaten zuten jesuita bat maisu zelarik.

Ehundik gora ziren herriko ikasleak, eta 90 etxean bertan jan eta lo egiten zutenak.

Ikastetxeko 11 jesuiten artean ba ziren bost euskaraz mintzatzen zirenak, baina ikasle gehienak ez zekiten euskararik.

Hauen artean lan eginez, ikasi behar zuen erdaraz, Errekarteko mutil jator euskaldunak.

Baten baino gehiagotan barre egingo zioten "el fuente" edo "la mapa" bere euskaldun ahotik irtetzen zirenean.

Urte bete igarota, Praiskuk poz haundi bat izan zuen. Aita Aranaren Egunarian irakurtzen da: "1872 urtea.

Irailak 17.

Gaur Azpeitiako hiru mutil laguntzale etori dira. Hauetako bat Errekarteko Inazio, Praiskuren anaia da".

Pentsa nolako poza hartuko zuen Praiskuk bere anaia txikiagoa bere ondoan ikusita.

Pilota-lekuan joko ederrak egingo zituzten.

ZEZENAK ERE BAI

Ba zituen Urduñako ikastetxeak hiru pilota-leku, zabalak, eguraldi txarretarako estaliak.

Zer moduzko pilotaria ote zen Praisku?

Ez ona eta ez txarra. Hala-holakoa.

Ikastetxeko jai haundietan, ikasleen pozgarri, zezentxo bat ateratzen zen patoria, bere adartxoekin, mutilak hankaz gora botatzen zekiena.

Azpeitiarrak zezen-zale amorratuak izanik, Praiskuk ba zekien besteak baino hobeto, noski, zezentxoa "foreatzen".

Eguberrietan, orduan, ikasleak ez ziren etxera joaten, baina egun alai horiek pozik igarotzen zituzten antzerkiak paratuz, turroia ugari janez, musika eta kantu bitartean...

Baina batez ere eskolarik gabe lasai biziz.

Udaberrian, eguraldiak laguntzen zuenean, Urduña inguruko mendietara, ibilaldi atseginak egiten zituzten.

Ikastetxe hartako ikasleek, beren bitzta osoan, pozez beterik gogoratzen zituzten, etxe hartan igarotako urte atsegingarriak.

Praiskuk, bien bitartean, bere bokazioan pentsatzen zuen.

GERRA USAIN TXARRA

Etxe-barneko giroa, umore onekoa bazen ere, kanpoan gudu-usain txarra somatzen zen.

Aita Aranaren EGUNARIA jarrai dezagun:
1872. Urduña.

* * *

Apirilak 21. Igandea.

Karlistak gerrak altxa direla, surru-murrua zabaldu da herrian.

Apirilak 22. Astelehena.

Arratsaldeko 5'30 etan karlista talde armatua, —50 gizon edo— Urduñan azaldu da, eta deiadarka hasi dira: Viva España! Abajo el Rey extranjero! (Amadeogatik)...

Apirilak 23. Astearte.

Karlistak herrian bando bat zabaldu dute, esanaz: 18 urtetik 40 urtera artekoak, "boluntarioak", izena ematera joateko. Bando berdina eman dute 3'30etan eta iluntzean, "estado de sitio" delakoa adieraziz.

Apirilak 24. Asteazkena.

100 mutil gazte joan omen dira "boluntario" herritik. Emakumeak negarrez. Herriko ikasleak, ia guztiak gaur ez dira eskolara etorri.

Maiatzak 31. Ostirala.

Arratsaldean 3ak aldean, liberal tropak etorri dira, —2000 lagun inguru— kanoi txiki batekin.

Jefe liberal batzuk gure ikastetxea ikusten etorri dira.

Ekainak 1. Larunbata.

Liberal tropak Amurrioko bidea hartu dute, berekin zenbait preso eramanez.

Ekainak 3. Astelehena.

Untzako eliz-aurrean, bi gizon aita-semeak—afusilatu dituzte, 1'30etan.

Ikastetxeko historiagileak, 1872-1873 urteari buruz, berri hau ematen du:

"Gure ikasleen buruak bero-bero egon dira ikasturte osoan, herri hau alde bietako soldaduen pasa-bidea izan delako.

Gure ikasleak asko gutxitu dira, mutil asko karlisten artera "boluntario" joan direlako.

* * *

Gertakari hauek zer zartada egin ote zioten Praiskuri bere bihotzean?

Pertsonak ez bait gara basoan bakartadean bizi.

Nahiz-eta gu ez konturatu, gure inguruko pertsonak, gertaerak eta giroak, eragin handia dute gure geroko bizitzan eta pentsaeran.

JAUNAREN DEIA

Praiskuk Loiolan jesuitak kanpotik ezagutu zituen. Urduñan, ordea, barrutik ezagutzeko aukera ezin hobea izan zuen.

Errekarten erlijio giroa biziki sentitzen bazen, Urduñako ikastetxean ez behintzat motelago.

Egunero Meza Santua eta errosarioa.

Jaunartze eta aitortzak sarri.

Urtero hiru eguneko "erretiroa", barneko arazoak

Jainkoarekin bakarrean isilean pentsatzeko.

Maiatzean Mariaren loreak.

Ekainean Jesusen Bihotzaren hilebetea.

Han zegoen herritik hurbil, "La Antiguako" santutegi maitatua, Andre Mariari eskainia.

Hara joaten ziren sarritan ikasleak, Zeruko Amari

Maiatzeko hilean loreak eskaintzera, baita

"esaminetako" estudialdian laguntza eskatzera.

Ba zuen Praiskuk bere animaren zuzendaria.

Erljio-bizitzako "bokazioa" Jaunak nahi duenari dohan, ematen dion opari-erregalia da.

Gizonak, eskerrik asko esanez, onartu egiten du; edo eskua atzeratuz ukatu dezake.

Praiskuk Jesusen Lagundian bizitza ematea erabaki zuen, eta beste aldetik Lagundiko Nagusiek Praiskuren eskabidea onartu zuten.

AZKEN EGUBERRIAK ETXEAN

Praiskuk, Urduñan bi urte luze igaro ondoren, bere etxera Eguberriak igarotzera etorri zenean, Loiolako jesuiten etxea, joan zenean baino alaiago aurkitu zuen.

1873, urtean karlistak gerrako aldi onean zeuden. Madrilen Errepublika nagusitu zen, urte betean, eta hango nahaspilen artean liberal "beltzak" gerrarako gogo gutxi azaltzen zuten.

Bien bitartean karlistak, aurrera! Gipuzkoa osoa, Donostia ezik, karlisten mendean zegoen.

Urte honetako abustuan, Lizarraga Jeneralak, jesuitei San Inazioaren etxeko giltzak eman zizkien, berriz ere beren etxearen jabe zirela adierazteko.

* * *

Baina Praiskuk Errekarten beste "berri" pozgarri bat aurkitu zuen:

Bost hilebetoko bere arreba txikiena, Mari Kristiñe, oraïndik ezagutzen ez zuen aingerutxo zoragarria.

Hura poza Praiskurena, bere familia osoa berriz mahai baten inguruan elkarturik ikusi zuenean. Eguberri jaiek gazi-gofoak izan ziren Praiskurentzat. Gofoak, bere etxeko eta lagunaren artean aurkitzen zelako. Gaziak, bere etxean emango zituen azken Eguberriak, haiek izango zirela ongi zekiëlako. Baina Jaunaren DEIAK honenbesteko sakrifizioa egitea merezi zuen.

KONTRABANDOZ

Bi gazte ziren Loiola inguruan, Urduñan egon ondoren, Jesusen Lagundian sartu nahi zutenak:

"Katalangoa" baserriko Joxe Inazio Bereziartua, eta "Errekarteko" Praisku Garate.

Urduñan ikasitako beste gazte bat ere, Dimakoa, Lorentzo Zabala, prest zegoen jesuita izateko.

Hirurak batera Frantziara joatea erabaki zuten, han bizi bait ziren orduan jesuita gaztek, erbestera bidalita.

Zein egunetan jarriko bidean?

Urtarrilaren 16an.

Baina gudua bizi-bizian zegoen, eta ezin inorekin fiatu.

Zer gerta ere, Katalangoako Gaxpar, eta Patxik, mutilen gurasoek, lagunduko zioten bidean.

Negu gorrian, goizean goiz, bihotzak negarrez, etxekoei agur egin, eta gure bi gizon eta hiru gaztek Frantziarako bidea hartu zuten.

Mendiz-mendi, bidetxigorrak aprobeztatuz, ez zuten aurkitu eragozpenik, ezta Bidasoa ibaia pasatzean ere.

BIDEZ-BIDE

Loiolatik Donibane Lohitzuneraino —60 kilometro— oinez egun batean egin zuten.

Ez zen gehiegizko bidea aldi hartako ibiltarientzat.

Donibanen ba zen familia bat bere etxean pozik, erbestera zihoazen jesuitak hartzen zituena.

Etxe hartan afaldu, atsedean hartu, lo egin zuten, eta hurrengo egunean trenez, Dax-eraino joan ziren.

Hiri hontatik Poyanne-rainoko bidea, 17 kilometro, zaldi-gurdian egin zuten.

Negua izan arren, eguraldi onak izan zituzten. Poyanne-n, jesuiten etxean, mutilen zai zegoen, Urduñan ezagutu zuten Aita Arana, azkoitiarra.

Honek "ongi etorri" beroena egin zien gazteei, eta gero bere EGUNARIAN apuntatu zuen: 1874. Poyanne.

Urtarrila 17. Larunbata. Eguraldi ona.

"Gaur etorri dira Gaxpar Katalangoako, eta Frantzisko Errekarteko, beren seme Joxe Inazio eta Praiskurekin, jesuita laguntzaile izateko asmoz, eta Zabala Lorentzo ikasle izateko".

POYANNE

1874-1877

POYANNE HERRIA

1869. urtean Loiolatik kanpora bidalitako jesuitak, Landesetako Poyanne-n aurkitu zuten bizilekua. Ipar-Euskal-Herriko mugatik 50 kilometro besterik ez.

Poyanne 300 bizilagundun herrixka polita zen.

Mendirik ez. Dena zelai. Dena orlegi.

Eliza inguruan etxe gutxi batzuk, eta belardien artean, han eta hemen baserri zuriek ikusten ziren.

Arto-zoroak, mahastiak, pikondoak eta zuhaiztiak oraindik atsegina egiten zuten lurralde baketsu hau.

Zer zirraraz gozoa egin zion herritxo honek jesulagun euskaldun bati lehen aldiz Poyanne ikusiko zuenean! Honela kontatzen du:

"Lurralde hau gure Euskal Herriaren antzeko da, dena berdea, baserri zuriz jantzia.

Herriko bizilagun gehienak nekazariak dira, eta jendea oso atsegina eta elizkoia da.

Nik esango nuke, gure baserriarren antzeko izateko, euskaraz mintzatzea, besterik, ez dutela behar".

Eta Kastillako lur legorretan jaiotzako Luis Martin, gero Jesusen Lagundiko Buru izango zenak, dio:

"Lurralde hau bai benetan polita dela!

Zoragarria da ¡Txoraturik nauka!

Ez da hemen mendi haundirik ikusten, baina bai han eta hemen sakabanaturik, zuhaizki ederrak, udako bero kiskalgarrietan haien itzalpean atseden hartzeko gustagarriak".

ETA JESUITEN ETXEA?

Aintzinako "chateau" edo jauregi zahar, haundi bat zen, 12 hektareako baratzaren erdian.

Etxe hartan 200 inguru jesulagun bizi ziren: irakasleak 30, ikasleak 130 eta anaia laguntzileak 40.

Anaia laguntzaileen artean ba ziren: sukaldariak, nekazariak, igeltseruak, arotzak eta abar.

Poyanne-ko "chateau" hori, heriaren barruan, beste herri txiki bat zela esan zitekeen.

Etxe barneko giroa, ordea, ikasketak egiteko, eta Jaunari emanda bizitzeko oso egokia zela, aitortzen digu Aita Tarin herri-mixiolari famatuak:

"Gure etxe barneko isiltasunak, herriko bakeak, hemengo zuhaitz itzaltsuak, eta baratze zabalak, otoitz eta lan giroa sortzen dute.

Hemen dena da bakea, gazteen artean alaitasuna, eta lan eginez Jainkoa zerbitzeko gogo bizia".


Aberri-minak bakarrik iluntzen zuen etxe gaineko eguzki argia.

Giro honetan sartu zen Praisku hurrengo egunean, 1874. urteko urtarillaren 18an, bere aitari, eskutuan negar eginez, agur egin zionean.

Praiskuk ez zuen gehiago bere aita ikusiko. Hurrengo urtean, maiatzak 31, Patxi gizon jatorra, Errekarte bere baserrian hil zen, nafarrieriak eta baztanga izeneko gaitzak jota.

Zer esanik ez dago, bizi izan zen bezala, Elizakoak hartuta, Kristau jatorra legez hil zela. Bere semeak, bihotzeko pena haundiz, aita zenaren alde, Jainkoari otoitz egingo zion, Poyanne-ko kapilan.

POYANNE



EZ ZUEN EZER IDATZITA UTZI

Jesusen Lagundiko askoak ohitura izan dute, beren bihotzeko sentipenak eta barrengo argitasunak, kuademotxo batean apuntatzea.

Garate Frantziskok, ezer idatzi bazuen ere, guri ez zigun holako kuademotxorik utzi.

Horregatik bere barrengo "gauzak" isilean utzi beharrean gaude.

Hala ere, ba dakigu irailaren 10ean hasi eta urriaren 11. erarte, beste jesulagun sar-berriekin batera, isilean, hilebeteko gogo-jardunak egin zituela.

Bestalde, Garateren eguneroko bizitza gutxi-gora-behera, honelakoa zen:

Goizean otoitzaldia, meza santua, eta tokatzen zen egunean jaunartzea.

—aldi hartan ez zen egunero jaunartzeko ohiturarik—

Etxeko lanak egin, gaisozainari lagundu eta abar...

Bazkaldu eta atseden pixka bat hartu.

Arratsalde erdian otoitzaldia, irakurgai espiritualak... eta berriz ere lanera.

Afaidu, atseden pixka bat hartu,

eta gaueko otoitzak egin ondoren

Jaunaren bakean lo egin.

Poyanne bizi izan zen jesulagun batek dio:

"Poyannen nire garaiak bizi ziren jesulagunen artean,

nik nai nuen norbait eredutzat hartu,

ni ere haren antzeko izan nendin.

Bi ziren, nire eritziz, jesulagun oso-osoak:

mezadunen artean Aita Urraburu, bizkaitar, Zeanurikoa,

eta anaien artean Garate Frantzisko, Loiolakoa.

JESUSEN LAGUNDIKO

Jesusen Lagundiak bi urtetan euki ohi ditu "probaz" jesuita-gaiak.

Bi urte horietan jesulagun gazteek erakutsi behar dute, Jaungoikoak lagunduta, aurrera egin dutela animako birtuteetan, eta mundu honetako eginkizunak ongi betetzeko ere, gai direla.

Bi urte horien ondoren, Lagundiko Nagusiek, Jaunaren aurrean erabaki behar dute, nork balio duen, eta nor ez, Jesusen Lagundian bizitza osoa eramateko.

Frantzisko Garate eta Inazio Bereziartua, biak batera prestatu ziren, ahalik ondoen, zortzi eguneko gogo-jardunak egin ondoren, beren zin-hitzak edo botoak egiteko,

1876. urteko otsailaren 2an.

Poyannen, etxeko kapilan, mezaldian, Jaunartu aurretik, Hosti Santuaren aurrean belaunikaturik, Frantzisko Garate Anaiak hitz hauek esan zituen:

ZINITZAK-BOTOAK

"Jaungoiko ahalguztidun eta betikoa,
nik Frantzisko Garatek,
nahiz eta nor ez izan zure aurrean aurkezteko,
zure maitasun amaigabea fidaturik,
eta zu zerbitzatzeko gogoak bultzaturik,
Maria Birjina eta gure anaiarreba santuen aurrean,
behartasun, garbitasun eta menpekotasun
zinitzak agintzen dizkizut, Jesulagundian.

Eta Jesulagundi beronetan sartzea
agintzen dut bertan betirako bizitzeko,
guztiau Jesulagundiko Konstituzioen arabera
ulertuz.

Jesukristoren odolaren bitartez,
zera eskatzen dizut apaltasunez:
gogo onez har dezazula nire eskaintza hau,
eta berau nahi izan eta zuri eskaintzera
lagundu didazun bezala, lagun iezadazu ere,
zure graziaren ugaritasunaz,
eskaintza hau betetzen".

"Poyanne-ko ikastetxean
1876.eko otsailaren 2an".

FRANTZISKO BERE ANAIA INAZIOREKIN

Botoak egin ondoren, 9 hilebete gehiago Poyannen
gelditu zen Frantzisko, gaisozaintza ikasten,
baita etxeko beste lanetan laguntzen.

"Langilea zen", dio lekuko-testigu batek,
"Eta gauzak ikasteko buru argia zuen,
baita alaia zen bere jardunetan".

Poyanne-ko etxe maitea utzi aurretik,
poz haundi bat izan zuen Frantziskok,
bere anaia txikiagoa, Inazio, jesuita izateko
Poyanne-ra etorri zenean.

Hemen ere Aita Aranaren EGUNARIA testigu:
"1877. Poyanne.

Urriak 2. Astelehena. Eguraldi ona.
Gaur etorri da Errekarteko Inazio
Frantziskoren anaia, jesuita izateko asmoz".

26 egun bakarrik egin zituen Frantziskok
bere anaia Inazioekin batera.

Handik laster, 1877. urteko urriak 26,
Bereziartua eta Garate Anaiak, biak batera,
Galiziako La Guardia ikastetxera joateko
aukeratuak izan ziren:

Bereziartua sukaldaritzan lan egiteko,
eta Garate gaisozain izateko.

EUSKAL HERRIA ILUN

Poyannetik Galiziako La Guardira bidean, Garate Anaiak,
Gipuzkoa eta Araba trenez pasa zituenean,
nola ikusi ote zuen Euskal Herriko egoera?

Aldi hartako giro triste, iluna, oso egoki
adierazi zuen Otxandioko Felipe Arrese Beitiak,
bere bertsoetan:

Neure biotzeko amatxo laztana,
aintzinako ama Euskera,
seme leial bat orain datortzu
azken agurra ematera.
Ainbeste gerra goitu ezinda
danori atsotu zara.
Zaurien zauriz galdu galduta
Amatxo, zoaz iltzera.

Euskal Herria Karlos Erregerengan jarri zuen
bere etorkizunaren esperantza osoa.

Orain Errege horrek ihes egin du, "volveré"
esanaz, baina ez zen itzuli.

1876. urtean Canovas del Castillok
Foru-askatasun osoa kendu zion Euskal Herriari.

Euskaldunek, bi gerra ondoren, odol hustuta,
besterik ezinean burua makurtu, eta beren zoritxarra
isilean irentsi beharrean zeuden.

1895. urtean Canovas del Castillok, Gipuzkoako
Santa Ageda bainuetxean, anarkista baten tiropean
bere bizia galdu zuen.

LA GUARDIA PONTEVEDRA 1877-1888

LA GUARDIA-PONTEVEDRA

Jesusen Lagundiak Santiago Apostoluaren ikastetxea, Portugaleko mugan, Galiziako La Guardia eraiki zuen, Espaniako gobernuak bere lurraldetik jesulagunak botatzen bazituen, mugaren beste aldean, Portugalen, babesa errazago aurkitu ahal zezaten.

Ikastetxe hori, Miño ibaiaren aldamenean zegoen, Pontevedrako probintzian.

Leku bakartia zen, baina zabala eta ederra. Aldi hartakoek etxe horri "Arca de Noé" deitzen zioten, adin eta moeta guztietako ikasleak bertan bizi zirelako:

Txikiak, batxiler ikasten ari zirenak.

Gasteak, unibertsitateko ikasketak egiten zituztenak. Seminaristak, apaiz izateko prestatzen zirenak.

Talde bakoitzak bere apartzeko bizilekua zuen. Guztiera 200dik gora bizilagun ziren, eta denen gaisozain, Garate Anaia izango zen.

Sasoizko bere 20 urte ederrekin Garate Anaia berehala lanean hasi zen.

IKUSI BAZENUTEN !

"Ikusi bazenuten", dio orduko ikasle batek,
"Garate Anaia bi bandeja haundi eskuetan, basoz,
saldo-katiluz, kopaz eta nik ez dakit beste zerez
bete-beterik, eskilaretan gora eta behera arin-arin
haizetan ibiltzen..."

Herrietako jaitara etorri ohi diren holako

komedianteren bat zela pentsatuko zenuten...

Hain arin eta erraz eramaten zituen hainbeste tresna,
inoiz ere apurtzeko beldurrik gabe.

Ikastetxe hartara joan zen "ikusle ofizial" batek
hona hemen zer dion hango osasunari buruz:


"Jainkoari eskerrak, ez da hemen gaiso larririk.

Denak osasun onaren jabe dira.

—Etxe hontako gaisozaina hemen ikusten da
ikasgeletara joaten, makal daudenei indargarniak
ematera; baita jolastokietara ere, ikasleei
behar dituzten sendagaiak eskaintzera".

Nor ote zen gaisozain begiko hori?
Anaia Frantzisko Garate.

SANTA TEKLA MENDIA. BEHE ALDEAN, LAGVARDIA



"CHAFAROTEREN" AITORMENA

La Guardiako ikasle asko euskaldunak ziren, bilbotarrak gehienak, Urduñako ikastetxetik hara joanak. Luis Arana Goiri ere han egon zen 1880 urtean, injineri karrerako prestaketak egiten.

Beste zenbait ikasle katalunyarrak ziren, baita Espainiako beste lurraldetakoak ere.

Denak "barrukoak" ziren, bertan jan ta lo egiten zutenak.

Ikasleen artean ba zen Luis Marin izeneko bat, geroago "El Siglo Futuron" egunkarian "Chafarote" izengoitiz idatziko zuena.

Idazle honena dira aitormen polit hauek:

"Galiziako zeru euritsuak ez ninduen ongi hartu.

Lau urte egin nituen La Guardiako ikastetxean.

Lehen urtean osasunez hala-hola,

Bigarreanean gaizkiago.

Hirugarrenean oraindik gaizkiago.

Laugarrenean hilerio izaten nuen eztarri eta bronkiotako eraso gogorra.

Azkenik, boladaka, sukar bizi bat izaten nuen.

Hura etortzen zenean oheratu egiten nintzen, eta kito.

Hurrengo hilebetera arte aldegiten zuen...

Makalaldi horietan nahiko lan izaten zuen nirekin Garate Anaiak, baita nik ere gogoan hartu harek niri egin zidan hainbeste mesede.

"Azken urtean, oportetan etxera joateko eguna etorri zenean, inoiz gertatu ez zaidana, negar egin nuen Garate Anaiari "agur" esan nionean, eta ez negar nolanahi sotinka baizik.

Aldegiteko eguna etorri zitzaidanean
eta gure Garate azaldu ez, ni ez negoen nire onean,
hari zerbait esan gabe aldegitako,

Dei egin nion, etortzeko, mesedez.

Berehala etorri zen.

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nizkion nigatik egindako guztien orde, eta bapatean burura etorri zitzaizkidan harek niri lau urtetan egindako mesede guztiak.

Bihotzak palast egin zidan,
eta ezin gehiagoz, ume txiki baten antzera,
negarrari eman nion.

Berak ere ez zituen malkoak urruti,

baina negarrari eutsi zion.

Lagun onak bezala elkarrengandik aldegin genuen.

Harritzekoa da gero!

Hamar urte bizi izan naiz jesulagunen artean,
eta inork ere ez zidan horrelako negar gozorik
egin erazi "Agur" egiterakoan.

Ama batek bezalaxe zekien gaisoei laguntzen
Garate Anaia goxoak".

ZABALETA ANAIAREN AITORMENA

Frantzisko Zabaleta, azpeitiar mutil euskalduna, La Guardian bizi izan zen Garateren ondoan, eta honek esanda dakigu beste gertakizun hau:

"Ikasturte baten hasieran ikastetxera mutiltxo bar etxetik etorri orduko, tifoide sukarrak hartu zuen, eta gogor hartu ere.

Gau batetan ere Garate Anaia ez zela oheratu nik egingo nuke, halik eta mutilari gaitzak alde egin zion arte.

Gauero, besteak ohera joaten ziren bitartean, han gelditzen zen mutilaren gelan zai, eten gabe, aulkian eserita, gaisoaren ondoan, geldi, begira, aingerua bezalaxe, ezer gertatzen bazen ere, beti laguntzeko prest".

Eta Elgoibarko beste testigu batek dio:
"Guk ba genekien, La Guardian inor gaisotzen bazen, gaisozaina izango zela, inork baino pena haundiagoa eramango zuena. Jan gabe, lorik bage, gaisoaren nekeak eta nahigabeak Anaia Garatek berak eramaten zituela, zirudien".

Horregatik Nagusiek, lanbide hortan leher egin ez zezan, beste toki batera aldatzea pentsatu zuten.



AZKEN BOTOAK

Legezko da Jesusen Lagundian hamar urte otoitzean eta lanean eraman ondoren, "Azken Botoak" egitea.

Honek esan nahi du, proba guztiak eraman ondoren, jesusen lagun oso-osokoa egiten dela.

Lurreko ondasunik badu, Jainkoagatik, betiko utzi egin behar ditu, eta Jesusen antzera bizitza osoan pobretasunean, garbitasunean, eta mendetasunean bizi behar du.

Garate Anaiak bere "Azken Botoak" La Guardiako elizan egin zituen.

1887. urtean Andre Mari egunean, Aita Txomin Landa ikastetxeko Nagusiaren aurrean. "Nik, Frantzisko Garatek, Andre Mari, Jainkoaren amaren, eta zeruko santuen aurrean, agintzen diot. Jainko Ahalguztidunari, eta zuri Aita Txomin Landari, Jainkoaren ordezkoiari, betiko pobretasuna, garbitasuna eta mendetasuna...

La Guardiako ikastetxean, 1887. abustuak 15.

Poz handia izan zuten biak:
Garate Anaiak eta Aita Txominek, bada, 14 urte lehenago hartu zuen honek Garate mutila, Urduñako ikastetxean.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK

Euskal Herriko Unibertsitatean historia jakinez gero,
ez dugu euskaldunok asko harrotzekonk.

13. mendean Tuteran nahi izen zuten Unibertsitate bat ireki, baina ez zen ezer egin.
 14. mendean Uxue-ko santutegia izan zen hortarako hautatua, baina ez zen ezer egin.
 1539. urtean Iratxeko komentuan, Lizarra ondoan, Frantzisko Kordoba Jaunak Unibertsitate bat sortu zuen, beneditarren menpean, filosofia, teologia eta legeak emateko. Baina 1824 urtean ateak itxi egin zituen.
 1542. urtean Gipuzkoako Oñati-n, bertako seme batek Rodrigo Merkado Zuazolak, Avilan gotzai zelarik, Unibertsitate bat eraiki zuen, bere diruekin. Legeak, filosofia eta medikutza ematen ziren. Baina Esparterok 1842 urtean suntsitu zuen.
 1630. urtean Iruñean "Santiago" Unibertsitatea ireki zen. Bertan mendikutza eta legeak irakasten ziren. Baina 1771. urtean itzali zen.
 1779. urtean Bergaran Unibertsitate antzeko bat "Real Sociedad de Amigos del País" taldeak eraiki zuen. Fisika, Kimika, Matematikak, Natur Zientziak eta hizkuntzak irakasten ziren. Baina hau ere 1822 urtean hil zen.
- Gauzak honela zirelarik, 19. mendean ez zen Euskal Herrian ikasketak egiteko gazteentzat Unibertsitaterik.
- Mendiku edo legegizon izan nahi zuenak Zaragoza, Salamanka, Valladolid edo Santiagora joan beharke zuen.

DEVSTV
BILBO
1888-1929

DEUSTU'KO UNIBERTSITATEA

Ospeaundiko bilbotar talde batek, 12 gizon-emakume, Iturrizar Kasilda Andrea haien artean, Unibertsitatearen falta hori ikusirik, "La Enseñanza Católica" delako "Sociedad Anónima" osotu zuten, Bizkaiaarentzat Goi-mailako ikastetxe bat, lehenbailehen erakitzeko asmoz.

Lurrak erosi eta berehala ikastetxea egiten hasi ziren.

Inglaterratik makinarianik berriena ekarri, eta 300 langile hasi ziren lanean.

Erdiak emakumeak ziren.

1886. urtean zabaldu zituen lehen aldiz bere ateak Deustuko Unibertsitateak.

Eskubide, filosofia eta letrak ematen ziren.

Lehen ikasurtean 90 ziren ikasleak.

1888. urtean, Garate hara joan zenean, 197 ikasle ziren.

* * *

Bestalde Bilbo Hiria indartsu goraka zihoan, bai industrian, baita bizilagunetan.

1880. bizilagunak 32,000

1890. bizilagunak 55,00

1915. bizilagunak 100,000

1929, Garate hil zen urtean, 160,000 bizilagun.

Hala ere, esan genezake, ez zela Deustukoa Unibertsitate osokoa.

Valladolid-ko unibertsitateari lotuta zegoen.

Hara joan behar izaten zuten urtero Deustuko ikasleek ikasurteko azken azterketak egiten.

"Tituloa" emateko eskubide hori ez zuen lortu Deustuk, 1961. urterarte.

LA GUARDIATIK DEUSTURA

Aldi hartan Deustun bizi zen lekuko-testigu batek —Garateren lagun handia izango zen Zuriarrainek— aitormen hau utzi zuen guretzat:

"Garate Anaia La Guardiatic Deustura etori zenean, bere aurretik "izen" handia zekarren.

Guztiak langile sutua zela, ba zekiten, baita apala eta santua zela ere esaten hasi ziren.

Eta ez zen gezurra.

Hemen heriotzaraino egin zituen urte piloan ez zaio handik ekarri zuen "izen" hori gutxitu".

Garatek 31 urte zituen La Guardiatic Deustura etori zenean.


Han gaisozaina izan bazen, hemen atezaina izango zen.

Baita han bezala, hemen ere sakristauaren laguntzaile izango zan.

Ikastetxeko lanak oraindik guztiz amaitu gabe zeuden, baina Garate Anaia han jarri zen, gogo osoz, atea zaintzen.

Nork pentsatuko zuen lanbide hortan berrogei ete bat urte egingo zituela!

DEVSTVKO VNI BERTSITATEA



GORPUTZEZ NOLAKOA ZEN

Gorputzez ez haundi, ez txiki.
Aragiz iharra eta mehea, baina osasun onekoa.
Burua pixka bar aurrerantz makurtua.
Bekoki zabalean kaska-motz agurgarria...
Metal zurizko betaurreko txikien atzean, begi biziak,
baina lotsati bezala ezkutatuak.
Norbaitekin hitzegiterakoan begiak jaso egiten zituen.
Ezpainetan beti irribarra goxoa zuen,
baina irri algarakariz ez.
Euskal baserriar jator zenez gero,
HITZ GUTXIKO GIZONA ZEN,
esan behar zena esan, eta kitto, gero isildu egiten zen.
Emakumeek begi finak dituzte
besteak nola jazten diren aztertzeko.
Hona zer dion Deustora sarri etortzen zen batek:
"Inoiz ere ez nion sotana berri bat ikusi.
Soinean zeramana urrutitik antzeman zitekeen
ez zela bere gorputzaren neurrian egina.
Norena ote zen? Zein hildakorena? nik pentsatzen nuen.
Ateko bere mutil laguntzaileak esan zidan,
sotana urratuak Garatek berak josten zituela.
Oinetako berririk ere ez nion inoiz ikusi.
Buruko sonbrerua ere modatik pasatakoa zen.
Baina hori bai, bere soinekoak beti garbi,
zikiniz gabe, erabiltzen zituen".

ARGAZKI BAKARRA

"Ez zuen nahi berari argazkirik egiterik"
esaten digu Garatek atean laguntzaile izan zuen
Azpeitiako mutikoak.
"Garate Anaiak esaten zigun argazkiak mutil gazte
ederrentzat bakarrik zirela".
Aita Boetto, italiarra, gero Kardenal izango zena,
Deustuko unibertsitatea bisitatzera etorri zenean,
ohar bar eman dute jesulagunen artean:
halako ordutan, etxeko guztiak, patioan biltzeko,
oraigarritzat argazki bat egin nahi zela-eta.
Han azaldu zen Anaia Garate ere.
Baina azken segunduan, beste norbaiten atzean ezkutaturik,
argazkian bere buruko kaska-motz agurgarria besterik
ez zen agertu.

* * *

Zenbait urte geroago,
Jesusen Lagundiko Buru zen Wladimiro Ledochowski Aita,
Deustura etorri zenean, agindu berdina eman zuten:
Etxeko guztiak bilduta zeudelarik,
eta argazkilaria prest, Zuriarrain Anaiak,
Aita Wladimiro-rengana joan arin-arin joan,
eta erdi txantxetan, erdi benetan, esan zion:
"Anaia Garate santua da, eta honera etortzeko esan digu,
baina bera ez da etorri".
Aita Ledochowski Garate Anaiari etortzeko
esatera norbait bidali zuen...
Agertu zenean, denek farre algaraz hartu zuten,
"gaur ez duk ihes egingo" beren artean pentsatuz.
Eta toki egokian jartzera behartu zuten.
Hau da gaur guk dugun Garateren argazki bakarra.

EGUNEROKO BIZITZA

Goizeko 4ak inguruan jaikitzen zela, uste dugu, baina aparte bizi zenez gero, ezin inork garbi jakin.

5. Ateak ireki eta Meza lagundu. Gosaldu eta abar.

6.30 Eguneroko lana hasten zen. Ogia ataritik jantokira eraman, Egunkariak hartu. Ataria garbitu eta abar.

8.15 Kanpoko ikasleak sartzen hasten ziren. Geroztik lana eten gabe: telefono deiak, enkarguak, eskaleak, "pelmak", galderak... Hortarako mutiko laguntzaile bat zuen.

12. Bazkaria. Atsedeen pixka bat hartu, eta beriz ere atarira, lan berdinerara.


6.30 Kanpoko ikasleak joaten ziren, eta lana gutxiagotu. Otoizak eta irakurgai espiritualak egin.

8. Afaria. Atsedeen pixka bat hartu. Gaueko otoitzak egin.

10.30 Ateak itxi eta oheratu.

Opor eta jai egunetan atariko lana arinagoa zen. eta otoitz egiteko asti gehiago atera zitekeen.

Larunbat arratsaldetan, lan gutxiago zuenez, sakristiako bandejak, kandeleruak, palmatoriak eta abar, garbitzen zituen.



GARATEREN OTOITZA

Bestean aurrean aurkitzen zenean, kontu haundia izaten zuen A. Garatek, aparteko gauzarik ez egiteko.

Bere bizitzako legerik haundiena hau izan zela esan daiteke:

"Gauza guztietan **BESTEAK BEZALA**".

Baina barrengo sua ezin da beti ezkutatu.

"Ni aspalditik Garate Anaiaren atzetik nebilen", esaten digu Aita P. Arregi azpeitiarrak, "ea zerbait apartekorik edo nabarmenik ikusten edo aurkitzen nion.

Behin goizeko bostetan isil-isilik kapilara sartu nintzen... eta Garate Anaia lurrean etzanda luze-luze aurkitu nuen, otoitzean, bekokia lurrari josita... Ni hara sartu nintzela ohartu gabe, hala egon zen luzaro samar, nik berariz zarata egin nuen arte... Orduan zutitu zen, eta lurrera zerbait erori balitzaio bezala, haren bila hasi zen".

Zerbait holako kontaktzen digute
beste zenbait testigu-lekukok ere.

Beste gertakari hau lekaime "Reparadora" batek kontaktzen digu:

"Deustuko Unibertsitatera telefonoz dei egin beharra izan zuen.

Garate Anaiak ez, baizik beste norbaitek hartu zuen telefonoa, baina gero ahaztu egin zitzaion telefonoaren belarritakoa bere lekuan jartzea.

Horrela nik telefono haritik dena entzuten nuen.

Geroxeago Garate A. etorri zen, eta bakarrik zelakoan hasi Andre Mariarekin, nik entzuteko moduan, hitzegiten hasi zen.

Andre Mari bezpera zen.

Zernolako gauzak esaten zizkion Garate Anaiak zeruko Amari. Entzunez bakarrik ni zoratzen nengoan.

JESUS EUKARISTIAN

Garate Anaiak egunero goizeko bostetan meza laguntzen zuen.

Meza emaleak aitormen hau utzi digu: "Jauna hartzen zuenean, nik uste dut, sinisgabe haundienak ere, begira balio, nahi eta nahi ez, aitortu beharko zuela: honek, ezin ukatu, bere barrenean Jauna hartu du".

Ostegun Santu bezperan aldameneko etxeetara joaten zen "Monumenturako" argi-ontziak, loreak eta beste edergailuak eskatzera.

"Monumentu" aurrean Gure Jauna gurtzen zenbat ordu ematen zituen, inork ezin esan.

"Gu lotara joaten ginenean, han gelditzen zen Garate A. Sakramentuaren aurrean otoitzean... Eta goizean goiz, gu kapilara sartzean, han berriz aurkitzen genuen, belainikaturrik, Sakramentuko gure Jauna adoratzeko".

Gauza bat jakina zen, eta testigu guztiek diote: "Ez zen Garate A. kapila aurretik pasako, gure Jaunari, atea irekita, ikustalditxo bat egin gabe. Eta irteterakoan, askotan, lurrari muin ematen zion".

IKASBIDE ONA EMAN ZIGUN

Inauterietan, asteartez, Gure Jauna agirian zelarik, gizadiaren pekatuen ordez barkamena eskatzeko, "ibildeuna" antolatzen zen Unibertsitateko klaustroetan zehar.

Hortarako Garate Anaiak sarrerako eskilaradia, lorez, argiz, eta beste edergailu askoz apaitzen zuen.

Benetan gauza ikusgarria zen.

Gauza guzti hauek eskuratzeko, bezperan Garate Anaia, sakristauarekin batera, alboko etxeetara joaten zen, gauza guzti hauek eskatzera.

Jendetza haundia biltzen zen egun horretan Deustuko ikastetxean: gizonak, andreak, eta batez ere Bilboko neska gazteak.

Deustuko ikasleek "uniformez" jantzita egoten ziren.

Horregatik haundia izaten zen egun horretan.

A. Garateren poza.

Baina, 1916. urtean, Aita Leza, Erretore berriak, jai hori kentzeko agindua eman zuen.

Ba zituen bere arrazoiak hortarako.

Garate Anaiaren tamala haundia izan zen.

Aurpegian ere igertzen zitzaion.

Halaz ere, bere atsekabea azaltzeko, ez zen haren ahotik hitz txikiarik ere atera.

"Ikasbide ona eman zigun"

esaten digu Garaterekin bizi zen jesulagun batek.

BELENGO ESTALPEA

Eguberriak — Gabonak — etortzen zirenean, Garate Anaia, haurtxo bat baino pozago ikusten zen Belengo estalpea prestatzen.

Ate ondoko gelako batetan jartzen zuen gogo haundiz Jesus Haurtxoaren "Jaiotza", Ederra benetan. "Jaiotza" nola ipini eta edertu, aurreko hiletatik hasten zen Garate pentsatzen.

Hortarako laguntza eskatzen zion Arozena Anaiari. Jesulagun hau, marrazki egilea zenez gero, trebea zen "Prespektibak" ongi hartzen, eta irudi bakoitza bere tokian jartzen.

Garate Anaiak oso pozik hartzen zituen bere "Jaiotza" apaintzeko ematen zizkieten gauzak: irudiak, etxetxoak, argiak, kortxoak, eta abar.

Txoritxoak kioletan ere "Estalpe" ondoan jartzen zituen, berak zionez:

"Jesus Haurtxoa soinu goxoz gores dezaten". Auzoko jendetza haundia, haurtxo txikiak batez ere, etortzen ziren Deustora, beraiek esaten zutenez:

Anaia Garateren "Jaiotza" ikustera.

Atezainaren poza ez zen txikia, haurtxoei batez ere, Jesus Umearen estalpetxoa erakusten zienean.

Haurtxoei, goxo-goxo, bere azalpenak egiten zizkien Garate Anaiak.

Nagusien aurrean, ordea, gehienetan, isilik egoten zen.

AGUR MARI BAT

Deustuko Unibertsitateko patio baten erdian
Andre Mariaren estatua eder bat dago.
Haren aurretik igarotzean beti buruaz zeruko amari
"agur" goxo bat bidaltzen zion,
eta bere inguruan, lurrean, loreak zaintzen zituen.

Maiatzeko hilean Andre Mariari lorerik ez faltatzeko
aurretik hasten zen landareak zaintzen.

Egun batetan andre batzuk harriturik gelditu ziren
Garate Anaiak patioan zituen landareei begira.

Galdetu omen zioten:

- Baina, Garate Anaia, zer egiten diezu landare horiei
hain eder eta haundi hazteko?
- Zer egingo diet, bada? Ura bota behar dutenean.
- Guk ere botatzen diegu, baina ez dira horrela hazten.
- Hara bada, ura botatzerakoan "Agur Mari" bat
errezaten dut.

Bai, Garate Anaiak, Andre Maria, Jesusen Ama, maite zuen.

Egunero "Piissima" izeneko liburuxotik
otoitz egiten zuen.

Behin, ikasle batek, Garateren pazientzia probatzeko,
liburuxo hori ezkutatu egin zion, eta gero
adarra jotzeko, noizean behin, galdetzen zion:

- Garate, gaur ez al duzu errezurik egiten?
- Ahal dena egiten da.

Hiru egun barru liburuxo hori agertu zen,
eta atezainaren komentario bakarra, hau izan zen:
"Banekien agertuko zela"

BIHOTZA BETERIK, URA ITURRITIK

Garate Anaia maingua zen idazteko.
Bere barrengo Jainkozko bizitzari buruz,
ez zigun ezer idatzita utzi, esan dugunez.

Bestealde, bera ezagutu zutenek esaten digute,
ez zuela atsegin, inori kontsejuak ematea.

Baina hala ere, han eta hemen, tarteka aurkitutako
bere esanak eta hitzak, argi erakusten digute,
bere barrengo bizitza ez zela ulergaitza,
erraza eta tolesgabea baizik.

* * *

Testigu-lekuko batek aitortzen du:

"Hitz gutxiko gizona zen, baina noizean behin
entzun nion esaten:

"Zergatik orain atsedean hartu?

Ba dugu zeruan denbora betiko atsedena hartzeko"

Beste testigu batek hau dio:

"Garate Anaia egun osoan lan eta lan ikusita,
nik galdetu nion:

"Nola ari zara lanean eten gabe egun osoan,
barrengo bakea galdu gabe?

"Nik ahal dudana egiten dut", erantzun zidan,
"eta Jaunak egiten du beste guztia".

Errosarioa errezatzerakoan mutikoari esaten zion:

"Erreza dezagun astiro, begirunez,
Jainkoarekin hitzegiten dugula gogoratuz"

Bere ezpainenatik, ura iturritik bezain erraz,
ateratzen ziren honelako esaldi txiki mamitsuak:

"Jainkoa lagun ona dugu"

"Zein ona den gure Jainkoa"

"Jainkoa pagatzaile ona da"

"Eskerrak Jainkoari"

"Jainkoak ordainduko dizu"

Baita beste honelako esaldi luzetxoagoak ere:

"Orain hau da gure egitekoa,
gero etorriko da bestea". (Zeruan atsedean hartzea)

Inor esker txarragatik kexatzen bazen, esaten zion:

"Mundu honetan gaizki ordainduak bagara ere,
bestean ez da horrela izango"... Edo beste hau:

"Zintzo jokatu behar dugu.

Ez digute gizonak pagatuko, Jainkoak baizik"

"Jai egunetan", dio mutiko laguntzaile batek,

"elizako lanak arinago egiten genituen

gero jolasera joateko, eta berak esaten zigun:

Ez duzue egin behar gizonak ikusten zaituztelako,
horko horregatik baizik, eta behatzez Sagrarioa
erakusten zigun".

Egun batetan bekokia zauritutik ikusita

galdetu genion:

— Zer gerta zaizu?

—Ez dut Jainkoagatik aski sufritzen, eta Jaunak
ezbehar hau bidali dit.

Sarritan esaten zuen:

"Zein ona den Jainkoa guretzat,
eta zein bihotz gaiztokoak gu berarentzat".

Edota beste hau:

"Zenbat zor diogun Jaunari, egiten dizkigun
mesede guztiengatik"

Inauteri astearteko elizkizuna, Nagusiak

galerazi zuenean, asko sentitu zuen Garatek,

baina hau bakarrik esan zuen:

"Hola erabaki badu Nagusiak, hala izando da onena"

Bilboko greba-huelga egunetan langile haserretuen
beldurrez norbait ikaraz ikusi zuenean,

Garate Anaiak esan zion:

"Ez da ezer txarririk gertatuko, Jainkoak nahi ez badu"

OLATZ ETA BEGOÑAKO AMA

Astegunetan, arratsaldero errosario errezatzen zuen,
atariko mutil laguntzailearekin batera.

"Jaietan, ordea", —mutiko baten hitzak dira—

"goizean goiz esaten genuen errosarioa,
gero arratsalde osoa jolaserako libre eukitzeko"

"Arratsaldez, jaietan, beste mutiko bat
etortzen zen nire orde, eta harekin ere
beste errosario bat errezatzen zuen".

"Igande batetan mutiko guztiak Begoñara joan ginen,
eta nire orde atezain gelditu zen mutikoak,
haserre antzean Anaia Garateri esan zion:

"Beste guztiak Begoñara eta ni hemen"

"Ez zaitez estutu", esan zion Garate Anaiak,

"Hemendixe otoitz egingo diogu, eta Begoñako Amak
berdin lagunduko digu"

Andre Mariaren deituta guztietatik

Azpeitiako Olatz-ko Ama eta Begoñako Andre Mari
zituen Garate Anaiak maiteenak.

Ba zuen Garatek Deuston "album" bat
Loiola inguruko argazkiz betea, haien artean
Olatz-ko Amarena. Askotan erakusten zien "album" hori
atarian laguntzaile zituen Loiola inguruko
mutikoei.

"Niri euskaraz hitzegiten zidan", aitortzen du
azkoitiar mutiko batek.

"Hala ere, inoiz ere ez zidan esan, bera Loiolakoa
zenik".

SANTUA ZEN?

Lekuko-testigui entzun diezaiegun:

Aita Luziano Olabarrietak dio:

"Kanpo aldetik ez zitaion Garate Anaiari ezer gauza harigarririk ikusten, baina denok hari begira geunden; eta etxekoei sarritan entzun nien esaten:

Gizon hau egunen batetan aldareetan ikusiko dugu".

Urzelai Bernabe Anaiak dio:

"Nik ezagutu nuen urteetan, beti izan zen jesulagun egiazkoa, bai humiltasunean, bai eguneroko lanak zehatz egitean, baita pobretasun, jainko-zaletasun eta beste birtuteetan"

Garmendia Migel Anaiak:

"Bere santutasuna, Garate Anaiak, isilean, ezkutuan, kanpokoak ohartu gabe, eraman nahi zuela, esango nuke nik.

Egitan santua zen, baina zaratarik gabe".

Gatzagako Luis Izaga Aitak aitormen eman zuen:

"Gogoratzen naiz, 1916. urtean, Unibertsitateko irakasleak —10 edo— bildurik geundelarik, norbaitek esan zuela:

Inork Anaia Garateri aurkitzen badio ezer gaizki egin duenik, hemen esan dezala.

Denek isildu ziren.

Orduan lehengo berak jarraitu zuen esaten:

Garate Anaiak erabilitako zerbait duenak, gorde dezala, egunen batetan santu baten oroigarri izango da eta".

ZERGATIK ZEN SANTUA?

Hau bai dela gauza harigarria!

Denek Garate Anaia santutzat hartu arren gero "zergatik zen santua?" galderari erantzuten, zenbaitek ez daki zer esan.

Garmendia Migel Anaiak:

"Bere santu-fama, uste dut, ondo irabazia zuela, benetan santua zelako"

Guenetxea Nemesio Aitak:

"Beti izan zen Garate Anaia, erlijoso egiazkoa, jainko-zalea, langilea, esangina, beti laguntzeko prest zegoena.

Berarekin bizi izan nintzen urteetan ikusi nuen, bere santu-fama ongi irabazia zuela".

Rafael Leturia Aitak dio:

"Bete-betean jesulagun egiazkoa zen.

Baina bere santutasuna, isilean, ezkutuan, kanpokoak ikusi gabe, zaratarik gabe, eraman nahi zuen".

Mentxaka Manuel Aitak ederki esaten du:

"Garate Anaia santua, zen, gauza txikiak barrango espiritu haundiz, egiten zituelako"

Perez Arregi J.M. Aitak dio:

"Ez zitukeen bere eguneroko eginkizunak hain zehatz eta ongi egingo, Jainkoz beterik egon ez balitz.

Garateren birtuteak asko ziren, baina nik uste, lagun-urkoaren maitasuna izan zela, Garate Anaiaren birtuterik nagusia".

Beste testigu-lekuko batek dio:

"Garate Anaia humila zen, jainkozalea, langilea, bere buruarekin latza, baina birtute denetatik gorengoena, nire ustez, bere karitatea zen, beti zegoen edozeini mesede bat egiteko prest".

BI DOHATSU ELKARREN ONDOAN

Ibarrako Rafaela dohatsua, 7 seme-alaben ama, Deustuko Unibertsitatearen aldamenean bizi zen.

Emakume honek "Aingeru Zaintzaileak" delakoaren emakumeen Institutoa sortu zuen, zerbitzera baserrietatik hirira zetozen neskei laguntzeko.

Rafaela gaixorik zegoen, eta hil aurretik Garate Anaia ezagutu nahi zuen.

Egun batetan, goizean goiz, Garate Anaia Rafaelaren etxera joan zen, kapilauak ematen zuen meza laguntzera.

Rafaelaren poza haundia izan zen, bere etxean, Garate Anaia meza laguntzen ikusi zuenean.

Rafaela, 1900. urtean urdaileko minbiziaz, Jainkoaren pakean, hil zen.

"Aingeru Zaintzaileak" Institutoko lekaiameek nahi zuten, beren Amaren Dohatsu egiteko "prozesuan" Garate Anaia testigu izatea.

Baina Garate, hori egin aurretik, hil zen. Orain Deustun, ehun metroko tartean bi dohatsu aurkitzen dira:

Rafaela Ibarra, La Cava etxean, eta Frantzisko Garate, Unibertsitatean.

Baina Dohatsuen aldarera igotzean, Rafaelak Frantziskori urte betearen aurrea hartu zion.

BIZKAIKO GIZARTE GIROA

Bizkaiko gizartea, Garate Anaiaren denboran, hiru talde ezberdinetan banaturik zegoen, eta ez zuten elkarrekin ongi eramaten.

1. taldea. Kapitalista aberats haundiak.
Gutxi ziren. 15 familia, besterik ez.
Baina indar haundia zuten, banketxeak eta prentsa-egunkariak beren mendean zituztelako.
Taldea hau Madrid-zalea zen, katolikua, eta politikan liberala.
2. taldea. Bizkaian jaiotako euskaldunak.
Hauek, gehienbat, katolikuak ziren, eta politikan fuerista-abertzaleak.
3. taldea. Kanpotik meategi eta industriara etorritako langileak. Oso pobreak ziren.
Politikan sozialista-marxistak, eta gehienak antikatolikuak.

Soziologo batek ederki esan zuenez: Bizkaiko kapitalistak, katolikuak izanik, beren diru-gose aseztuz, langileei emandako soldata miserizkoengatik, kanpotik etorritako langile katolikuak, antikatoliku bihurtzea lortu zuten.

Bizkaian ba ziren 20. mendearen hasieran 30.000 langile miseria gorrian bizi zirenak.

Eguneroko lanaldia 11 orduko zen, eta lansariak bizitzeko justu-justu iristen ziren.

Etengabeko huelga eta borrokei esker beren bizimodua hobetzea lortu zuten.

BILBON BORROKAN HILAK

1917. urtean Espainiako giroa ez zen gozoa. Langileen soldatak eskasak, bitzta garestia, "inflazioa" goraka... Langileek, sindikatoetan elkartuta, indarra zuten, eta 9 orduko lana eta soldatak 25% jasotzea eskatzen zuten.

Bestaide, Euskadi eta Katalunyan abertzaletasunak indar haundia hartu zuen, eta autonomia eskatzen zuten.

Bi arazo larri hauek, bakoitzak bere aldetik, lur azpian ezkutatuta zegoen polborari su eman, eta leher egin zuen.

Militarrek Espainia osoan "Estado de Guerra" deklaratu zuten.

Honekin gauzak gaizkiagora joan ziren. Abustuaren 13, 14 eta 15ean, Bilbo inguruan, —militar eta heritarren arteko borrokan— hamabi izan ziren hilak eta asko zaurituak.

* * *


Holako egun batetan, langile huelgistik deiadarka, Nerbion ibaiaren bi aldamenetatik, kale betean, Bilborantz amorraturik zetozen.

Deustoko Unibertsitate aurretik pasatzerakoan, nobaitek, bildurturik, Garate Anaiari eskatu zion kanpoko atea ixteko.

Baina honek, ez bait zuen hortarako Nagusiaren baimenik, bake-bakez, erantzun zion:

"Jainkoaren eskuetan gaude. Zergatik beldurtu? Ez da ezer gertatuko Jainkoak nahi ez duenik".

BILBOKO OLAK



BEHARTSUEN LAGUN

Deustoko Unibertsitatera joaten ziren eskaleak, ez ziren irtengo Anaia Garateren atetik zerbait hartu gabe.

Beti izaten zuen horientzat Garatek diru pixka bat, baita ate ondoan sakuan gordeta ogi zati pilo galantak.

Bakoitzari ogi zati bat eta diru zerbait ematen zion. Ba zituen, ordea, lau edo bost pobre errukarriagoak. Horiei barrura sartzeko agindu, eta eserierazten zien.

Bitartean bera sukaldera joaten zen, ea haientzat zerbait hoberik, okelarik edo arrainik, ote zuen sukaldariari galdetzera.

Egundari-paperean bildu eta eramaten zien.

Anaia Eiguren, Deustuko sukaldariaren, aitormena da: "Garate Anaia egunaren barruan, nire sukaldean sartu-irten asko egiten zuen, bere pobreentzat beti zerbaiten bila.

Askotan etortzen zitzaidan esanez: Begira, behartsu hori gaiso dago, eta honalako janaria hobe lizakioke. Ahal baldin baduzu... Nola nik ezer ukatuko nion, horrela eskatzen zuen gizon bati".

Sendagaiak, botikak, hain garesti ziren aldi hartan, ba zituen Anaia Garatek Unibetsitate aurreko loretegi-baratzean, senda-belarrak, reuma, zaintiratu, giltzurri eta beste gaitzetarako oso onak omen zirenak.

Pobre asko etortzen ziren Deustoko atezainarengana. bere gaitzen erremedio bila, baita Garate Anaia pozik eman ere.

BERA ERE BEHARTSU

Deustoko Unibertsitatean ba da bazter-gela bat, kanpoko argirik gabe, arkuetara begira leiho txiki bat duena.

Gela hori, altua zalako, erdibi egin zuten: beheko aldea tresna zaharrak eta zakarrak gordetzeko, eta goiko aldea beste zerbait behar zenerako.

Goiko alde hau aukeratu zuen Garatek bizitokizat, atari ondoan egonik "gauzak eskurago izango zituela" aitzakia jarri.

Gela hori tresna hauekin hornituta zegoen: Bazterrean burdinezko ohe bat.

Eserleku baten gainean, aurpegia garbitzeko ontzia.

Horman gurutzea eta Andre Mariaren estampa bat zintzilik.

Soinekoak eskegitzeko gako-pertxa bat.

Eta besterik ezertxo ere ez.

"Bizarra kentzerakoan, belauniko jarri beharko zuen, argirik nahi bazuen, behintzat.

Bizarra mozteko labaina zahar-zaharra zuen. goldea pasata bezala aurpegia lagatzen ziona" dio lekuko-testigu batek.

MUTIKO BATEN AITORMEN BIZI-BIZIAK

Garate Anaiarekin Deustuko atarian egondako mutikoaren aitormen bizi-biziak direnez gero, berak kontatu bezala, hemen jartzea merezi dute.

"Markinakoa naiz".

"Hamabi urte nituela, Deustuko atarian Garate Anaiaren laguntzaile izan nintzen.

Bi urte egin nituen berarekin.

Garate Anaia benetan gizon zintzoa zen, nire ustez zintzoago ezin.

Iluntzean atarian "Santuen Bizitza" liburua ematen zidan irakurtzeko.

Nik, ordea, bizitza luzea bazen, orri batetik bestera salto egiten nuen.

Garate Anaiak, berehala konturatuta, esaten zidan: Anastasio, zintzoa izan, Jainkoak dena ikusten du".

Enkarguak egitean gehiegi tardatzen banuen, besoan atximurka egiten zidan, baina ez zuen min haundirik egiten.

Baina bestetan, nire hutsegitea haundiagoa bazen, kastigutzat esaten zidan:

"Datorren igandean ez duzu pelotan jokatu" Halaz ere gero zintzo portatzen banintzen, barkatu egiten zidan".

Pobreak atarira limosna eske etortzen zirenean, —batzuetan bait ehun ere— denak etxe aurreko eskilaretan filan jartzea nahi izaten zuen, alde batetik etorri eta bestetik joan zitezen.

Nik Garatek emanda enkargua nuen, inor bi aldiz etortzen ikusten banuen, berari esateko...

Esaten nion, eta berak holakoari, minik eman gabe, patxaran, esaten zion:

"Barka, baina zu lehen ere etorri zara", eta ez zion ematen.

Inoiz ere ez nuen Garate Anaia haserre ikusi.

Gauza guztiak pozik eta alai egiten zituen.

Nik ez nuen beragan aparteko gauzarik ikusi, baina niretzat Garate Anaia beste guztiak baino hobeoa zen.

Behin non bizi zen jakin izan nahi nuen, eta esku-eskilaraz gora, bere gelara, lo egiten zuen tokira, igo nintzen.

Pobreagoa ezin zitekeen izan.

Gure gelak baino askoz eskasagoa!

Ikusi banindu! Kastigatuko ninduela, uste dut".

GARATE ATEAN BETI ZAIN

"Valladoliden nintzen,

eta Deustora nire etxera nentorren.

Aurretik Garate Anaia adierazi nion

halako egunean eta orduan etorriko nintzela.

Baina egun hartan burnibideko huelga sortu zen, eta oso berandu heldu nintzen Bilbora, ia gaberdian.

Gaua pasatzera ostatu batera joatea pentsatu nuen, baina, bada ez bada ere, norbait Deuston iratzarrik egon zitekeela eta, hara joan nintzen.

Heldu nintzenean, atean argia ikusi nuen, norbait nire zain zegoela esan nahiz.

Garate Anaia zen.

Trenbideetako grebaren berri jakin zuen, eta berandu etorriko nintzela-eta, han zen nire zain.

Eta ez hori bakarrik:

berehala jantokira berarekin zerbait hartzera joateko agindu zidan.

Nik ezetz, gauerdia zela, eta hobe izango zela lehen-bait-lehen ohera joatea.

Harek ezetz, ba zela oraindik afaltzeko astia.

Halaxe egin nuen.

Gordeta zeukan afaria ekarri zidan, beroa gainera.

Afaldu bitartean nirekin hizketan jardun zuen.

Gero nire aurretik joan zen gelaraino, bideko argiak berak piztuz.

Nire gelako leihoak aurretik itxita utzi zituen, eta atea irekita, ahal zitekeen zaratarik gutxienaz, auzokoak esnatu gabe, ni nire gelan sartzeko.

Gero bera ere isil-isilean, behatz punten gainean, bere lo-tokira joan zen.

OGI ZATI BAT ZEN

Elgoibarko Agapitok, zahartzaroan pozik kontatzen zuen, nola mutikotan, La Guardian Garate Anaia ezagutu zuen.

"Ogi zati bat zen".

"Beti goxo, beti bihotz oneko.

Goikoekin eta behekoekin beti berdin,

edozeini bere beharretan laguntzeko beti prest.

Ba zekiten hori ongi, La Guardiako ikastetxean, benetan gaisotzen ziren ikasleek, baita txantxetan, esaminaldietan, gaisorik egon gabe, gaisoarena egiten zuten ikasle alferrek ere.

Denekin maitagarria zen.

Halako egun batetan, ni ere gaisotu nintzen,

eta pultsua hartzerakoan, esango nuke,

nik baino gehiago berak sufritu zuela.

Geroago, urte asko pasata ere, Garate Anaiak bere aintzinako lagunak gogoan zituen.

Ni, ezkondu ondoren, alabatxoarekin Deustura joan nintzen, Garate lagun zaharra ikustera.

Berehala ezagutu ninduen, eta nolako maitasunez hartu!

Nire alaba txikiak "jaiotza" ikusi nahi zuen,

eta bai berak gogo onez erakutsi ere.

Kaioretako txoriak kantatzen, bai gustora alabatxoak entzun zituela!

Gero La Guardiako gertaerak gogoratu bitartean, ikastetxea erakutsi zigun, eta agur egiterakoan nire alabatxoari sorbaldan ikuturik, goxo-goxo esan zion:

"Ea, txiki, zure aitaren antzeko izaten zaren!

EZ ZEN TONTOA

Ikasle batek esaten digu:

"Nork Garateri tranpa sartu?"

Eskola egunez inork, atezaina konturatu gabe kanpora, ihes egin nahi bazuen, berehala Garate bidera goxo-goxo, irtetzen zitzaion, galdetzeraz:

"Nora zoaz. Ba al duzu baimenik irteteko?"

Beste ikasle izandako batek aitortzen du:

"Behin, gure arteko batek, ikasteko gogo gutxiz, Unibertsitatez telefonoz hotsegin zuen, bere osabaren ahotsaren itxura eginez:

—Deustoko Unibertsitatea? Sentitzen dut, baina nire iloba (izena) gaisotu egin da eta gaur ez du eskolara joaterik.

Garatek telefonoako haiaren beste aldetik:

—Baina (izena) zein gaizki disimulatzen duzun zure osabaren ahotsa. Zatoz, zatoz eskolara!"

Beste baten aitormena:

"Opor egunetan, Bilbora irteten ginenean, gero gauzez, etxerakoan "cognak" botilaren bat edo, kontrabandoz, barrura pasa nahi izaten genuen.

Baina han zegoen ate ondoan Garate irribarrez, bere betaurreko txikien atzean begiak erne...

Eta gureganatuz eta disimuloz, galdetzen zigun:

—Gauon, mutilak, Arratsaidea ondo pasa al duzue?

Eta disimuloz gure potzikoko "kontrabandora" eskua eramaten zuen, eta gogo-goxo, esaten zigun:

—Honako hau pasatzeko baimenik ba al duzue?

Eta han utzi behar guk gure "fardela".

Garate gizagaisoak, zenbat pazientzia hartu behar gurekin!

"SUSPENSO" HITZ MADARIKATUA

Garate Anaia atariko mahai aurrean zutik dago.

Begien aurrean ikasturteko azken "notak" ditu.

Telefonoaren hotsa, tirrin, tirrin...

—Nor da?

—Halako ikaslearen ama naiz,

eta nire semearen notak jakin nahi nituzke.

Garate Anaiak paperera begiratu, eta nota gorri bat ikusten du.

—Andrea, esaminatzaileak, uste dut, ez direla guztiz pozik gelditu.

—Baina nik notak jakin nahi ditut.

—Andrea, esan dizut, ez duela suerte onik izan.

—Telefono hotsa indartsuago.

—Baina suspensorik ba al du?

—Andrea, nota bat, bat bakarra, ez du hain ona.

Telefonoa leher zorian, albokoak entzuteko moduz.

—Beraz, suspendidu dute?

—Holako zerbait, andrea, holako zerbait.

"Suspenso" hitza Garaterentzat madarikatua zen.

Ez zen halako hitz zatarrik haren hortzen artetik sekulan irtengo.

ANAIA GOXOA

"Garate Anaia guztiok maite genuen", dio ikasle batek.
"Ez genuen inolaz ere haren aurka ezer ezango.
Guk ba genekien berak ere gu maite gintuela,
Baina gurekin beti gizonki jarduten zuen,
umekeriarik gabe.

Nagusien aurrean, ahal zuen guztietan, gure alde
aterako zen, baina beti ezin.

Gu ere ez ginen santuak eta.

Ikasle gazte ginenean, jakina, guk umore ona,
eta batzuetan ikasteko gogo gehiegirik ere ez,
eta gure trastadak egiten genituen.

Halako faltaren bat egiten genuenean,
Garatek behar zuenari aditzera ematen zion,
baina ez beste inori, ahal zen guztian gure izen ona
zaindua izan zedin.

Guk Garate Anaia beti xamur, beti irribarra bere
ezpainetan ikusten genuen, eta horregatik guk, ikasleok,
"Garate" abizenaren ordeztu, "ANAIA GOXOA" izena gure
artean ematen genion.

HAUEK MUTILAK !

Udako oporrak igarota, 8 lagun gentozen Santander-
Bilbao trenean, Deustoko Unibertsitatara.

Gazteak ginen, gehiegi ere edan genuen, eta trenean ere
"jaleo" ederra sortu genuen.

Bilbora arratsaldeko 10etan heldu ginen, eta buruak bero,
zera pentsatu genuen: gutatik lau, guztien maletakin,
Deustora zuzenean joatea, eta beste laurak zazpi kaleetara
abiatzea "kopatxo" batzuk hartera.

Goizeko ordu bietan edo, heldu ginen Deustora.
Nolako harridura gurea atea zabalik ikustean!

Garate Anaia zegoen ate ondoan gure zain.
Gure aurretik joanak esan zioten, gu "beranduxeago"
etorriko ginela.

Gu, kopaz bete-beterik, "gora anaia goxoa" deiadarka
hasi ginen, eta gure bizkar gainera jatorik, "goraka"
klastroetan zehar erabili genuen.

"Hauek mutilak! Hauek mutilak! Utz nazazue!"
esaten zuen.

Hurrengo egunean gure larritasuna, zer-nolako kastigua
izango genuen pentsatuz.

Ez zen ezertxo ere gertatu.

Ikastetxeko guztiak lozorroan zeudelarik,
ez zuen inork ere ezer entzun.

Ezta gure "Anaia Goxoak" inori ezer esan ere.
"Umekeriak" izan zirela, pentsatuko zuen, noski".

ANAIA

"Garate A
"Ez genuen
Guk ba gen
Baina gurek
umekeriarik
Nagusien
aterako zen.
Gu ere e;
Ikasle gazte
eta batzuet
eta gure tra
Halako fa
Garatek bel
baina ez be
zaindua izai
Guk Gar
ezpainetan
"Garate" ab
artean emat

ZUZEN JOKATU OTE ZUEN ?

"Gertakari honen testigu neu izan nintzen",
esaten digu Leturia Aitak.

"Behin gertatu zen Erretoreak Garateri agindu hau
eman ziola:

Halako ikaslea Unibertsitatera datorkenean, atea itxi
eta ez utzi barrura sartzen, eta Erretorearen partetik
adieraz iezaiozu ikastetxetik botata dagoela".

Gau beranduan han zen ate joka ikasle hura.
Ordurako etxe barnekoak, baita Erretorea ere,
ohean lotan ziren.

Garatek mutilari atetik adierazi zion
zer nolako agindua hartua zuen Erretoreagandik.
Gazte hura lurra jota, zeharo hondatuta, gelditu zen.
Halako egoera larrian Garatek gaztea ikusirik,
eta beste aldetik bere etxera joateko, ordu hartan,
biderik ez zuelako, eta horregatik emakume galduen
etxeren batetara joan zitekeela-eta...
zalantza hartan, Garatek atea ireki, eta gazteari
barrura sartzen utzi zion.

Hurrengo egunean, goizean goiz, Erretoreagana
joan zen Garate egin zuena azaltzera.

Erretoreak, bere agindua bete ez zuelako,
gogor hartu zuen Garate Anaia.

Honek "trumoia" apal-apal entzun, eta eguraldia
pixka bat baretu zenean, zergatik egin zuen hori
humil-humil azaldu zion, alegia:
gazte hura pekatutik aldentzeko.

"Gaur Erretoreak errieta ederra eman dit"
esan zien Garatek bere lagunei.

Erretoreak, ordea, haserrea joan zitzaionean:

"Garatek bere hitz apalekin eskuetatik armak
kendu dizkit".

ATEREN GARAICO TAERA NAGUSIEN LABURPENA

Alfonso XII. Errege.

Bigarren karlista gerla amaitu.

Euskal Herriari Foru-askatasun osoa kendu.

U.G.T. sindikatoa, Pablo Iglesias-ek sortu.

Alfonso XII. hil.

Deustuko Unibertsitatea inauguratu.

Lehen huelga orokorra: 20,000 huelgazale.

1893. Hiru huelga greba orokorrak.

Sabino Arana Abertzale lanean hasi.

Athletik de Bilbao futbol taldea sortu.

Canovas del Castillo Santa Agedan erail.

Cuba eta Filipinasen independentzia.

Alfonso XIII. Errege.

Sabino Arana Sukarrietan hil.

Athletik Erregearen kopa irabazi.

Langileen greba-huelga orokorra.

Barzelonan 42 eliza eta komento erre.

E.L.A.-S.T.V. sindikato sortu.

Langileen greba-huelga orokorra.

1918. Europa gerla nagusia.

Bilboko kapitalistak asko aberastu.

Langileen greba orokorra, luzea,

Bilbon Prieto Indaleziok zuzendua.

Marruekoson El Anual gerla hondamendia.

14.000 soldadu hil edo desagertu.

Primo de Riveraren diktadura.

Abertzale kutsuko agerpen guztiak

zeharo galeraziak.

Berenger Jenerala agintari.

Errepublikak nagusi.

ZUZEN JOKATU OTE ZUEN ?

"Gertakari honen testigu neu izan nintzen",
esaten digu Leturia Aitak.

"Behin gertatu zen Erretoreak Garateri agindu hau
eman ziola:

Halako ikaslea Unibertsitatera datorkenean, atea itxi,
eta ez utzi barrura sartzen, eta Erretorearen partetik
adieraz iezaiozu ikastetxetik botata dagoela".

Gau beranduan han zen ate joka ikasle hura.
Ordurako etxe barnekoak, baita Erretorea ere,
ohean lotan ziren.

Garatek mutilari atetik adierazi zion
zer nolako agindua hartua zuen Erretoreagandik.
Gazte hura lurra jota, zeharo hondatuta, gelditu zen.
Halako egoera larrian Garatek gaztea ikusirik,
eta beste aldetik bere etxera joateko, ordu hartan,
biderik ez zuelako, eta horregatik emakume galduen
etxeren batetara joan zitekeela-eta...
zalantza hartan, Garatek atea ireki, eta gazteari
barrura sartzen utzi zion.

Hurrengo egunean, goizean goiz, Erretoreagana
joan zen Garate egin zuena azaltzera.

Erretoreak, bere agindua bete ez zuelako,
gogor hartu zuen Garate Anaia.

Honek "trumoia" apal-apal entzun, eta eguraldia
pixka bat baretu zenean, zergatik egin zuen hori
humil-humil azaldu zion, alegia:
gazte hura pekatutik aldentzeko.

"Gaur Erretoreak errieta ederra eman dit"
esan zien Garatek bere lagunei.

Erretoreak, ordea, haserrea joan zitzaionean:

"Garatek bere hitz apalekin eskuetatik armak
kendu dizkit".

GARATEREN GARAIKO GERTAERA NAGUSIEN LABURPENA

- 1874. Alfonso XII. Errege.
- 1876. Bigarren karlista gerla amaitu.
Euskal Herriari Foru-askatasun osoa kendu.
- 1879. U.G.T. sindikatoa, Pablo Iglesias-ek sortu.
- 1885. Alfonso XII. hil.
- 1886. Deustuko Unibertsitatea inauguratu.
- 1890. Lehen huelga orokorra: 20,000 huelgazale.
- 1890-1893. Hiru huelga greba orokorrak.
- 1893. Sabino Arana Abertzale lanean hasi.
- 1893. Athletik de Bilbao futbol taldea sortu.
- 1895. Canovas del Castillo Santa Agedan erail.
- 1898. Cuba eta Filipinasen independentzia.
- 1902. Alfonso XIII. Errege.
- 1903. Sabino Arana Sukarrietan hil.
- 1903. Athletik Erregearen kopa irabazi.
- 1906. Langileen greba-huelga orokorra.
- 1909. Barzelonan 42 eliza eta komento erre.
- 1910. E.L.A.-S.T.V. sindikato sortu.
- 1910. Langileen greba-huelga orokorra.
- 1914-1918. Europa gerla nagusia.
Bilboko kapitalistak asko aberastu.
- 1917. Langileen greba orokorra, luzea,
Bilbon Prieto Indaleziok zuzendua.
- 1921. Marruekosan El Anual gerla hondamendia.
14.000 soldadu hil edo desagertu.
- 1923. Primo de Riveraren diktadura.
Abertzale kutsuko agerpen guztiak
zeharo galeraziak.
- 1930. Berenger Jenerala agintari.
- 1931. Errepublika nagusi.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEAK FAMA TXARRA

Deustuko Unibertsitateak Madrid-en fama txarra zuen, Bilboko gaztedia abertzale aldera bultzatzen zuelako.

Deustuko irakasleek omen zuten erru guztia, beren eskoletan, abertzale idea "galgarri" horiek ikasleen buruetan ereiten zituztelako.

Ba zen Deustu bamean ere, su horri haizea ematen ziona.

Arazo honegatik Aita Horn eta Lardizabalek Deustutik kanpora joan beharra izan zuten.

Alfonso Erregek Aita Cahlboud ere atera nahi zuen. Aita Leza, nafarra, zen orduan jesuiten Probintziala.

Erregek Madrid-era joateko agindu zion.

Orain Aita Leza berari hitzegiten utziko diogu:

"Madrid-en Fernando Ibarra, Arriluzeko Markesak hartu ninduen, eta Erregerengana lagundu zidan.

Erregek neri butaka batetan eseri eraziz, bera aulkitxo batetan eseri zen.

Alfonso Erregek nahi zuen nik, nire aginduz, A. Chalbaud Deustutik desterratzea.

Nik esan nion errurik bazuen, jakin nahi nuela zer zen, erremedioa jartzeko, baina errurik gabe ezin nuela holako injustiziarik egin.

Nire kontzientziak ez zidala holakorik eskatzen.

Gauza zaila da Errege bati, honek hiru lau aldiz eskatutako gauza, inor ukatzera ausartzea, baina nik egin nuen, eta ez nago damututa".

Dena dela, A. Chalbaud ez zen Deustutik irten.

Eta A. Horn hurrengo ikasurtean Deustura itzuli zen.

A. Lardizabal, zaharra, penaz kanpoan hil zen.

Jesuiten artean gero zabaldu zen, Erregek esan zuela:

"Aita Lezaren antzeko hiru nahi nituke nik,

Espania gobernatzeko".

Badakigu A. Chalbaud A. Garateren lagun handia zela.

Honelako ezer kontatu ote zion Garate Anaiari?

HEMEN DA GURE SANTUA !

Primo de Rivera, diktadorearen aginte-aldian, Andesetako Kondea, Frantzisko Moreno Zulueta Jauna, Ekonomi Ministrari izendatua izan zen.

Deustuko ikasle izan zenez gero, bere ikaskide batzuk, omenaldi bat eskaini zioten Unibertsitatean.

Eguna iritsi zenean, Deustuko ataria Jaun Haundikiz betea ikusten zen.

Sartu zen Ministrari Jauna, eta hango jende handia alde batera utzita, zuzen-zuzenean Garaterengana aurreratu zen, deiadarka esanez:

"Hemen da gure santua"

Garate Anaiak lotsaturik, erantzun zion:

"Zu beti bezala, txoriburu, txoriburu".

Bazkariaren azken aldian, denak pozik zeudela, Ministrariak Aita Erretorerai zer bait esan zion belarrira.

Erretoreak aitzoaz basua joz, jendea isilerazi zuen, eta..." esaiozue Garate Anaiari etortzeko".

Atezainak ez zuen holakorik nahi, baina Erretorearen agindua zela jakinik, bazkaltokira sartu zen, bazter alde batetik.

Jendeak bazter-bide hura bere gorputzekin itxi egin zion, eta Garatek erditik sartu beharra izan zuen. Txaloka hartu zuten.

Garate, begiak apal-apalik, mahai bururaino aurreratu zen, baina ez zuen han luzaro iraun.

Ez dakigu nola baina gure begietatik laster ezkutatu zen.

PRAISKU BERE AMAREKIN

Errekarten ezkontuta zegoen senide zaharena, Joxe Mari, aspalditik ez zebilen ondo osasunez, bizkar-hezurretik. Min haundiak zituen.

Aldi hartan Bilbora etorri omen zen fama handiko sendagile bat hezurretako gaitzetan "mirariak" egiten zekiena.

Senar-emazteak Bilbora joatea erabaki zuten, eta Mari Batistak bidean lagunduko zien.

Eta bai pozik ere, Deustun bere seme maitea ikusiko bait zuen.

Sendagilea ikusi ondoren, Deustuko bidea hartu zuten. Amak, bidean arin-arinka pozez beterik, esaten omen zuen: "Goazen, goazen semetxoak ikustera".

Deustuko atarian ama-semeen agurra erraza izan zen

—Zer moduz, ama?

—Etxekoak ondo?

—Baseniko gauzak ondo?

Ni ere hemen, Jainkoari eskerrak, oso ondo. Eta mutiko laguntzaileari ateko enkarguak utzita, egon-tokira eraman zituen.

Ordu bete inguru eraman zuten eserita, etxeko eta auzoko gauzei buruz hizketa gozoan.

Ama-semeak, aspaldian elkar ikusi gabe, ordu beteko zerua izan zuten.

Gero, Deustutik etxerakoan, amak pozez zorutzen esaten omen zuen:

"Gure semetxo hau, zapata eta guzti, santu egingo dute".

ANAIK ELKARREKIN

Errekarteko hiru anaia sartu ziren Jesusen Lagundian:
Frantzisko, Deustuko atezain.
Inazio, Urduñan gaisozain.
Andres, Loiolan atezain.

1921. urtean, 400 urte bete ziren Iñigo Loiolakoa Iruñean zauritua izan zela.

Hori zela eta, Loiolan eliz-ospakizun haundiak egin ziren.

Deustuko Nagusiak Garate Anaia Loiolara bidali zuen jai horiek ikustera, Poyannera joateko bere etxetik irten zenez gero, ez bait zen gehiago Loiolan izan.

Goizeko 9'30etan iritsi zen Loiolara.

Jaia ospatzean basilikan koru txikian egon zen. Bazkaldu zuen.

Eta arratsaldeko 5etan prest zegoen Bilbora itzultzeko. Praskuren anaia Andres, Loiolako atezain garai hartan.

Honek, arren eta arren, bere anaiari eskatu zion, lo egiteko gela prestatuta zuela-eta, mesedez, beste egun gehiago bertan egoteko.

Alferrik, ordea.

Frantziskok berehala Bilbora joan behar zuela.

—Zer ordutan daukat Elgoibarko autobusa?

—Halako orduan, erantzun zion Anaia Andresek.

Frantzisko joan zen zintzo-zintzo autobusa hartzera, baina ordu bete lehenago joana zen.

Etixerakoan Andresek Frantziskori:

—Zer? Berebilak ihes egin al ditu?

—Bai, bai. Ordua zuzen ematea hobe zenuen.

Eta bat ere haserre gabe Etxe Haundira sartu zen, eta bi egun gehiago bertan egin zituen.

HIRU ANAIK FRANTZISKO, INAZIO, ANDRES

Praiskuren anaia txikiagoa Inazio Garate,
Urduñako ikastetxean gaisozaina zen.

Askoren eritziz, ez zen bere anaia
Frantzisko baino, santu eskasagoa.
Loiolan hil zen 1940. urtean.

Andres Garate, Loiolako atezaina, Bilbora joatea
gertatzen zitzaionean, beti Deustura joaten zen,
bere anaia Praisku ikustera.

Honek atarian harrera maitekorra egiten zion,
baina alditxo batean hizketan jardun ondoren,
esaten zion:

—Hara, Andres, Goenaga Anaia zure lagun mamia da,
eta poz handia izango du, zurekin hizketalditxo
gozo bat egitean. Zoaz beregana.

—Baina ni ez naiz hura ikustera etorri,
zu baizik.

—Bai, hala da. Baina ni lanpetuta nago.
eta hobe izango duzu harengana joatea.
Zu ikusteaz asko poztuko da.

Garate Anaia bere senideekin ere
HITZ GUTXIKO GIZONA ZEN

ONDO EGIN AL ZUEN ?

1927. urtean Urduñan gaisozain zen Inaziok,
Frantziskoren anaiak, Jesusen lagundian 50 urte
bete zituen.

Egun egokia zen, noski, hiru anaia jesuitak elkar hartu
eta ordu gozo batzuk elkarrekin emateko.

Andresek Loiolatik Frantziskori adierazi zion,
bera halako egunean eta orduan Bilboko geltokian
egongo zela, gero biak batera Urduñara joateko.

Frantzisko nahiko aitzakia asmatzen hasi zen
Deustotik ez irteteko, baina azkenean anaia izateak
eta 50 urte Lagundian irauteak, horrenbeste merezi
zuela eta, tira ba, bere anaia Andresekin batera
Urduñara joango zela erabaki zuen.

Eguna eta ordua etorri zirenean, Andres Bilboko
geltokian zai. Frantzisko ez zen azaldu.
Andresek Urduñara bakarrik joan beharra izan zuen.

Urduñan bere anaia Inaziorekin batera
"eskerrak emateko" meza entzun ondoren, anaia biak
Frantzisko ez zela etorriko etsita zeudenean,
hara non agertzen den Praisku bazkal aurrean.

Bere anaia Inazio ikusi aurretik, egun hartan ere,
Frantzisko Antiguako Amari ikustalditxo bat egitera
joan zen.

Hiru anaiak elkarrekin bazkaldu zuten.
Arratsaldean kolejioko ikasleek beren gaisozainari
festa txiki bat prestatu zioten, kantu eta bertsoekin.

Frantziskok berehala Deustora itzuli nahi zuen.
Bere bi anaiek, mesedez, bertan ordu pare bat gehiago
geldi zedila eskatu zioten, mutilen omenalditxo
amaitu arte.

Dena alferrik, ordea.
Bazkalondoan, lehen trenean, Deustura itzuli zen.

HIRU EGUN OHEAN

Garate Anaia, atariko mutikoa lagun zuelarik, esku-eskilara luze batekin, etxeko elizara joan zen, aldare gaineko hautsak kentzera.

Mutikoak behetik eskilarari eusten zion bitartean, Garate goiko puntaraino igo zen hautsak astintzera. Garate goian zenean, atariko txintxarriak jo zuen. Mutikoa, ohitura zuenez, eskilara bertan utzita, korrika, atea zabaltzera joan zen.

Bi segundo barru burrunba haundi bat entzun zen. Mutikoa arin-arin itzuli, eta Garate lurean minez aurkitu zuen.

Beldurtu zen mutikoa, baina Garate Anaiak minik hartu ez balu bezala, mutilari esan zion: "Zoaz atea zabaltzera, ea nor den eta zer nahi duen". Baina hiru egun ohean eman behar izan zituen.

Beste hiru egun ohean egin zituen sukar gaizto bat etorri zitzaionean.

Beste gaisoaldirik, guk dakigunez, ez zuen bere bizitza osoan izan.

Garate Anaiari behatzeko zauri bat gaiztotu egin zitzaion.

Sendagileak barrengo zorna ateratzeko aitzoaz ziztatu egin behar zion.

Gero galdetu zion, ea minik hartu zuen.

"Neke pixka bat, besterik ez" erantzun zion Garatek.

BERETZAT TXARRENA

Garate Anaia ezagutu zuten lekuko-testiguak esandakoak bildu ondoren, hau jakin daiteke garbi:

Garatek beretzat txarrena eta astunena hartzen zuela.

Hona hemen zer dion batek:

"Garate oso langilea zen. Beti zerbait egiten ikusten genuen, eta beretzat lanik txarrenak eta neketsuenak hartzen zituen"

Beste lekuko-testigu batek dio:

"Behin, ikasturtearen lehen egunean, zaharra zalarik, Garate Anaia maleta bat eskuan eta beste bat buruan eskilara gora igotzen, neketan, ikusi nuen.

Maleta bat emateko, eskatu nion.

Berak ezetz.

Indarrez kendu behar izan nion...

Deustura bazkaltzera joan zen beste batek, zera dio:

"Bazkaltzen ari ginen, eta azkenean sagarrak genituen jateko.

Nire, albokoa, ukalondoan jo, eta belarira esan zidan:

"Begira, Garateri. Txarrena berak hartuko du"

Garatek begiratu bat egin zion postre platerari, eta sagarrik kaxkarrena beretzat hartu zuen.

Aldamenekoak esan zidan:

"Beti berdin egiten du".

Janari goxoagoren bat, bisigua edo, jateko denentzat ekartzen zutenean, Garatek patatak eta saltsa hartuz esaten zuen: "ni ez naiz moldatzen holako janari bitxiak aitzoaz zatitzen", eta hurrengoari pasatzen zion.

Bazkarian baso erdi ardo edaten zuen.

ZENBAIT GAUZA TXIKI

Gauza txiki hauek, uste dut, Garate Anaia hobeto ezagutzeko lagunduko digutela.

Garate Anaiak egiten zituen elizarako hostiak edo formak.

Hauek ebakitzean sobratzen ziren "errekorteak" paper sobretxoetan sartzen zituen, gero atera etortzen ziren haurtxoei emateko.

Garatek goizero hartzen zituen Bilbon azaltzen ziren prentsa-egunkariak.

Zuzenean bere lekura eramaten zituen "letra haundiei" ere begiratu gabe.

Deustuko jesuiten artean ba ziren pilotari onak, igande arratsaldetan joko interesgarriak egiten zekizkitenak.

Enkarguren bat egiteko pilota-lekura joaten zenean, ez zen behin ere jokalariei begira gelditzen. Eta ez ajolarik ez zuelako, berak "bere lanak zituelako" baizik.

Garatek bere lanak oso ondo eta zehatz egitea nahi zuen, baina besteekin ez zen hortan zorrotza.

Inork ez zion entzun esaten "pekatari haundi bat naiz" edo holako antzekorik. Bere buruaz ez zuen, ez onerako ez txarrerako hitzegiten.

Inork ez zuen Anaia Garate ikusi atariko leihotik, Nerbion ibaitik pasatzen ziren, itsasontziei begira.

Anaia Garatek nahi zuenari ilea mozten zion, baina bere "bezeroak" asko gutxitu ziren, hortarako "trebetasunik" ez zuelako.

BAKOITZAK BERE MUGAK

Gizon guztiak mugatuak gara eta bakoitzak bere "ezak" edo hutsuneak ditu.

Mugarik eta itzalik gabeko bakarra, Jainkoa.

Garate Anaiak ere bere "mugak" izan zituen.

Lekuko-testiguen entzun behar diegu:

"Jan, nahiko jaten zuela, uste dut, baina loari buruz ez nuke berdin esango", dio lekuko batek.

"Behin, Nagusiak galdetu zion, ea zenbat ordu

lo egiten zuen, eta Garatek erantzun zion:

"nahiko lo egiten dut". Baina nik ez dut hori uste.

Dena dela, egunez, loarekin burrukan ari zela, ematen zuen, eta gaueko otoitzetan loa menderatzeko zutik egoten zen.

Hala ere ezin zuen beti loa garaitu".

Beste testigu batek dio:

"Egunez ere, noizbaiten, lo-gurea ezin kendurik, begiak motel, ikusten genuen".

Oroimen-memoria haundikoa zen Garate Anaia.

Ez zuen enkarguak paperean idatzi beharrik.

Denak buruan hartzen zituen.

Baina zahartzaroan, mezu bat baino gehiago ere, ahastu egiten zitzaion, eta horregatik Nagusien agirakak eta aurpegi garratzak, isilean, eraman behar izan zituen.

Urduñara, bere anaia Inazioren urrezko eztaietara joan zenean, lagunaren artean ez zen izan ondo ikusia, anaiaren egun haundi hartan, omenalditxoan egon gabe, Bilbora lehen trenean itzultzea.

LAN ETA LAN, BETI ZUTIK, 41 URTE

Zenbat aldiz, egunaren barruan, eskilarak gora eta behera, ibili beharra izaten ote zuen Garate Anaiak, halakoari enkargu bat emateko, besteari atarian bere zain norbait zela esateko, gero telefonoko deia erantzuteko...

Egia esan, ba zuen hortarako mutiko laguntzaile bat, baina ahal bazuen, inori lanik eman gabe, berak egitea nahi izaten zuen.

Urteak 60tik gora joan arren, beti bizkor eta arin-arin eskilarak gora eta behera ibiltzen zen, salto txikiak emanez, 20 urteko gazte baten antzera. Gora igo, enkargua egin, eta berehala atarira itzultzen zen.

Ba zuen ate ondoan gelatxo bat, mahaian estanpatxoekin, bertan egoteko prestatua.

Hara bazterten zen, lana arintzen zenean, liburu santuren bat irakurtzeko ez bazen, edo eserita egin behar zen beste lanen bat ez bazuen, beti zutik, erne, ikusiko zenuen.

Astegun eta jai egun, uda eta negu, inoiz ere egun bateko oporrik hartu gabe, beti ate ondoan, zain egoten zen: nor etorriko, zer gertatuko, edo nori lagunduko,...

Udan eta jai egunetan lan gutxiago. Astegun eta ikasturte barruan lan astunagoa.

Inoiz ere barrengo bakea, eta ezpainetako irribarra galdu gabe. Eta hola 41 urte !!!

HIL AURREKO EGUNA

1929. urteko irailak 8. Andre Mariaren Jaiotza.

Eguna argitzen hasi zen.

Garate Anaiak, beti bezala, goizeko bostetan elizako ateak zabaldu, eta lehen meza lagunduz, bertan Jaunartu zuen.

Gainerako lanak beti bezala egin zituen. Zortzirak aldean gaisotegira joan zen sabeleko mina arintzeko zerbait eskatzera.

Lehen ere inoiz joan omen zen eskabide horrekin, eta gaisozaina, Goenaga Anaia, ez zen estutu.

Eskatutakoa emanez, ea gaizki sentitzen zen, gaisozainak galdetu zion, eta beste horrelakoak...

Nahastu aldia zuela, erantzun zion Garatek.

"Nik ez nion ondoezaren antzik eman" aitortzen du atariko mutikoak.

"Baina hamarrak aldean, ez zela ondo sentitzen esan zidan", dio lehengo mutikoak, "eta ezagun zen, eserita egon bait zen luzaroan, eta nik ez nuen hura inoiz eserita ikusi".

"Geroxeago bere atari ondoko gelara joan zen, nik enkargu betegatik hotsegin nion arte".

Eguerdia etorri zenean, ez zen joan bazkaltzera. Bazkaria amaitutakoan, Onaindia Anaia etorri zen Garateren ordean atarira, baina honek ez zion eman Onaindidari bere ondoezaren berririk.

"Eta nik ezer txarrik asmatu gabe", dio Onaindiak,

"han gelditu nintzen atezain, Garate bazkaltzera joan zelakoan".

Halako batetan atezain berriari, aldameneko gelara sartzea gertatu zitzaion, eta hona non aurkitzen duen Garate aulkian eserita, bazkaltzera joan gabe, oinazez eta minez.

—Zer duzu? Gaizki al zaude?

—Nahastu aldia dut, eta ez dut jateko gogorik.

—Zoaz, bada, mesedez, ohera etzatera.

Nik abisatuko diot gaisozainari.

—Ondo da, baina nire orde z kanpaia jo ezazu.

Igo zen Anaia Onaindia kanpaia jotzera,

baita berehala gaisozainari berri ematera.

Jaitsi zen gaisozaina, eta aulkian kuzkurtuta,

minez, aurkitu zuen Garate, baina honek oraindik ere:

Ez zela ezer. Urdailean min antza besterik ez zuela,

jardun zuen esaten, baina halaz ere baietz joango zela gaisotegira.

Gaisotegian egon ondoren berriz ere arratsaldeko 3'30etan edo, jaitsi zen atarira.

Baina ez zegoen bere onean.

Geldi-geldi jaitsi zen, eta neke haundiz.

—Duzun aurpegi horrekin nola zatoz berriz atarira?

—Ez nago ondo. Hemengo mina dut"

sabelera eskua eramanez.

—Oheratu zaitetz, bada, ea pasatzen zaizun.

—Hobetoxeago nago, eta gaur jaia denez gero,

zu joan zaitetz paseatzera. Ateko lan nik egingo dut.

—Ezta inola ere.

—Baina nigatik gelditu behar ote duzu pasiorik gabe?

—Bai, hala da, eta zoaz lehenbailehen, etzatera

oso gaizki zaude-eta.

Giltzak eman zizkidan eta joan zen bere gelatxora.

Baina ni ez nengoen nire onean, Garate hara-honera, bere gela inguruan sartu-irten zebilela ikusiñik.

Horietako batetan botaka egiteko larrialdiak ere eman zion.

Geroxeago, bostak eta laurdenetan edo, bere gelara sartu zen, eta atea itxi zuen.

Ohean egongo da, pentsatu nuen, baina ni bere osasunez kekaturretik, bere gelako eskilara igo, eta atea kanpotik poliki-poliki bultzatu nuen.

Ate ostean zutik aurkitu nuen, eskuak bularrean, otoitzean bezala.

—Zer egiten duzu hemen, bazterrik bazter?

Ez zidan ezer erantzun.

—Txoko bazter hau ez da egokia gaiso batentzat eta zoaz gaisotegira.

—Joango naiz, bada, erantzun zidan.

Eta bere atarian zituen Ama Birjina, Jose Donea, eta Alfonso Donearen estanpatxoei, burua makurtuta, azken "agurra" eginez, gaisotegira igo zen.

Nagusia aurkitu zuen eskilaretan, eta honi esan zion;

Aita, ez nago ondo, eta gaisotegira noa.

Bere burua hain gaizki ikusi arren ere, ez zen igaro eliza aurretik gure Jaunari, azken aldiz ikustalditxo bat egin gabe.

Atea ireki, otoitz labur bat egin belauniko, eta gaisotegirako bidea hartu zuen.

Arratsaldeko seirak inguru izango ziren.

Gerotxoago Aita Ibinagabeitia, etxeko Nagusia, gaisotegira igo zen.

Ordurako Garate Anaia ohean zegoen.

Bere betiko bakean aurkitzen zen.

"Sabelean nekea" omen zuen, baina hori ez zen ezer.

Horregatik gaisozaina, Goenaga Anaia, lasaitu zen, eta Aita Nagusiarri ohera joateko esan zion.

Gaueko hamaikak inguruan, ordea,
Garate Anaiak bere aitorlea etortzea nahi lukela
aditzera eman zuen.

Aita Lezak aitortu eta Gure Jauna eman zion.
Honekin gaisozaina estutu eta Aita Nagusia
jaiki erazi zuen, eta gaisotegira etortzeko
eskatu zion.

Nagusiak etorri zenean, telefonoz,
sendagileari otsegin zion.

Etxeko sendagilea Zesareo Diaz de Emparanza,
zestoarra zen.

Baina gau hartan, urruti, Algortan aurkitzen zen,
eta Garateren gaitza presazkoa zenez gero,
Zesareok, bere anaia Luisi otsegitea
hobe izango zela, aditzera eman zuen,
alde batetik bilbon bertan bizi zelako,
eta bestetik Garateren lagun eta miresle haundia
aspalditik zelako.

Otsegin zioten, bada, telefonoz, Luis Doktoareari,
eta Aita Nagusia Unibertsitateko atarira joan zen,
sendagileari, azaldu bezain laster,
gertatzen zenaren berri jakin eratzeko.

SENDAGILEAREN AITORMENA

Garate Anaiaren gaitza nolakoa izan zen jakiteko
Luis Díaz de Emparanza, sendagileari entzungo diogu:

"Irailaren 8-9 tarteko gauean, Unibertsitate
telefonoz dei egin zidaten, Garate Anaia gaizki zegoela
eta, mesedez, bera ikustera joateko.

Arin-arin joan, eta bere gelan sartu nintzenean,
Garatek esan zidan:

—Baina, Jauna, zergatik hartu duzu neke hau nigatik?

—Ez da niretzat nekerik. Pozik etorri naiz
zerbaitetan lagundu ahal badizut.

Bere aupegia ikusiz, berehala igeri nion ez zegoela ondo.

Nik betiko galderak eginik, berak esan zidan:

"Sabelean ba dut zerbait".

Pultsua hartu, eta oso makala aurkitu nion
gorputza indarrik gabe, eskuak hotz...

Azkenean ohartu nintzen maskuria edo puxika
ea lehertzeaz pixez bete-beterik zuela.

Zenbat egun dituzu pixik egin gabe? galdetu nion.

Eta berak: 60 ordu gutxi-gora-behera.

Min haundiak dituzu? galdetu nion.

Neke pixka bat, erantzun zidan.

"Sonda" sartzen hasi nintzen, baina ez nuen lortu.

Ostopo haundia aurkitu nuen bidean.

Estualdi hartan, pixa maskuritik ateratzeko

"troka" delakoari heldu nion.

Nahi nuena lortu nuen. Hiru litro atera nizkion.

Minak joan arren, bere osasuna beheraka zihoan.

Indargarriak eman nizkion, baina dena alferrik,
bere gorputz eroriak ez zuen gora egiteko indarririk.

Adierazi behar dut, berarekin jardun nuen guztian,
ez niola kalmantirik eman: alde batetik
bere osasunak ezin eraman izango zuelako,
eta bestaldetik Garate Anaia bere eramanpenez
min haundirik zuenik adierazten ez zuelako".

HERIOTZA

Goizeko hirurak.

Anaia Garateren erreguz sendagilea joan egin zen.

Gaisoak bere inguruan zeudenei ere ohera joan zitezela eskatu zien.

Anaia Migel Goenaga, Urrestillakoa, bada-ezpadan, gaisoa zaintzen gelditu zen. Garate betiko bakean, baretasun osoan ikusten zen... Goizeko bostak eta erdiak.

Bi enkargu egin zituen: bi euritako bidali omen zituen konpotzera, eta ez omen zituen oraindik ekarri. Bere atariko mahaiari 15 peseta omen zeuden hiru meza esateko...

Gero berriz ere bakean gelditu zen. Gerotxoago Migel Anaiari eskatu zion otzan-otzan; Gaisoen Sakramentua hartu nahi zuela.

Migelek esan zion, zazpiretan zela etxeko meza, eta haren ondoren ekarriko ziotela.

Baliteke orduan berandu izatea, erantzun zuen. Goizeko seirak eta erdiak.

Aita Lezak, Azken Igurtzia eman zion. Gero animaren "azkenotoitzak" egitea eskatu zuen.

Han zeuden Aita Nagusia, Aita Zurbano eta Esteban Goenaga Anaia, Migelen osaba.

Azken otoitzaren azken AMEN esaterakoan buruko argitasun osoan, animako bake gozoan.

Frantzisko Garate Aranguren Anaia jesulaguna, Jaungoikoaren besoetan hil zen.

1929. urteko irailaren 9. eguna zen.

Goizeko 7ak, eguzkiaren 6ak.

Gipuzkoako Zaindari, Arantzazuko Amaren jai.

LUR-EMATE ETA HILETAK

Bilboko pertsona gutxi izan ziren Garate Anaiaren heriotzaren berria jakin zutenak.

Bestalde, Garateren gorpua, izan zuen gaitzagatik, berehala usteltzen hasi zen, eta ezin zitekeen lur-ematea hurrengo egunera arte luzatu.

Hil zen egun berean eraman zuten Deustuko hilerria lur-ematera.

* * *

Hurrengo egunean izan zen Deustuko Unibertsitateko elizan, Garate Anaiaren alde hileta-meza.

Jendetza haundia bildu zen Unibertsitateko atezainari "azken agurra" egitera.

* * *

Gaur, Garate Anaia Dohatsuaren hezurak Deustuko Unibertsitatean, maitekiro zainduta daude, hainbat birtute isilen testigu izan zen atari ondoko kapilatxoan.

Pakean dezala atseden.




GARATE ANAIAREN GORALPENA

Aita Seberiano Azkona, Probintzialak,
Garate Anaiaren heriotzaren berri jesulagunei
ematean, gorespen hau egin zuen.

Garate Anaiaren bizitza santuaren laburpena dela,
esan daiteke.

"Garate Anaia, 42 urtean zehar,
Deustuko Unibertsitateko atarian,
bere Zaindari santu, Rodrigez Alonso Donearen
antzeko osoa izan zen.

Jesulagunek eta sekularrek,
Garate Anaiarengan beti miretsi zuten:
honen goi-maitasun sutua, batez ere pobreentzat.
Bere Jainko-zaletasun garbia.
Bere erabide eta neurritasuna.
Bere ezgogoko hutsuneak ezagutzeko apaltasuna.
Bere eramanpen aldaezina.
Bere denei laguntza emateko gogoia.
Bere iraupena lanean.
Bere leialtasuna eta zuhurtasuna,
eta bere eginkizunak ongi betetzeko buru-argia".



DOHATSUEN ALDAREAN

Garate Anaia hil eta 56 urte geroago,
1985. urteko Urriaren 6an,
Joan Paulo II. Aita Santuak
Frantzisko Garate Anaia
Dohatsuen aldarera jaso zuen.

AURKI-BIDEA

Hitz aurrea	7
Errekarte baserria	8
Erreinu txiki bat	9
Nahasketa txiki bat	10
Patxi bakarrik	11
Erromara nondik?	12
Patxi eta Mari Batista	14
Garate Frantzisko, Praisku	15
Martopilak	16
Praisku eskolara	17
Goazen eskolara!	18
Nork du eraztuna?	19
Praisku mutiko nolakoa zen	20
Erljio giroa	21
Ozpina eta olioia	22
Loiolatik jesuitak kanpora	23
XIX. mendea Espainian	24
Gertakarien laburpena	26
Euskal Herriko giroa XIX. mendean	27
Bertso berriak bizkaitar batek jarriak	28
Praisku Urduñara	31
Urduñako hiria	32
Beti aurrera!	34
Zezenak ere bai	35
Gerra usain txarra	36
Jaunaren Deia	38
Azken Eguberman etxean	39
Kontrabandoz	40
Bidez-bide	41
Poyanne herria	45
Eta jesuiten etxea?	46

Ez zuen ezer idatxita utzi	48
Jesusen Lagundiko	49
Zinitzak-botoak	50
Frantzisko bere anaia Inazioarekin	51
Euskal Herria ilun	52
La Guardia. Pontebedra	55
Ikusi bazenuten!	56
Chafaroteren aitormena	58
Zabaleta Anaiaren aitormena	60
Azken botoak	61
Euskal Herriko unibertsitateak	62
Deustu-ko Unibertsitatea	65
La Guardiatic Deustura	66
Argazki bakarra	69
Eguneroko bizitza	70
Garateren otoitza	72
Jesus Eukaristian	73
Ikasbide ona eman zigun	74
Belengo estalpea	75
Agur Mari bat	76
Bihotza beterik, ura iturritik	77
Olatz eta Begoñako Ama	79
Santua zen?	80
Zergatik zen santua?	81
Bi dohatsu elkarren ondoan	82
Bizkaiko gizarte giroa	83
Bilbon borrokan hilak	84
Behartsuen lagun	86
Bera ere behartsu	87
Mutiko baten aitormen bizi-biziak	88
Garate atean beti zain	90

Ogi zati bat zen	91
Ez zen tontoa	92
Suspensio, hitz madarikatua	93
Anaia goxoa	94
Hauak mutilak!	95
Zuzen jokatu ote zuen?	96
Garateren garaiko, gertaera nagusien laburpena	97
Deustuko Unibertsitateak fama txarra	98
Hemen da gure santua!	99
Praisku bere amarekin	100
Anaiak elkarrekin	101
Hiru anaiak, Frantzisko, Inazio eta Andres	102
Ondo egin al zuen?	103
Hiru egun ohean	104
Beretzat txarrena	105
Zenbait gauza txiki	106
Bakoitzak bere mugak	107
Lan eta lan, beti zutik, 41 urte	108
Hil aurreko eguna	109
Sendagilearen aitormena	113
Heriotza	114
Lur-emate eta hiletak	115
Garate Anaiaren goralpena	116
Dohatsuen aldarean	119